



Iñaki Goirizelaia: “Euskal Herria ez litzateke oraingo herria UPV/EHU barik”

UPV/EHUko errektore berria dugu Iñaki Goirizelaia. Bizkaiko Campuseko errektoreorde izan zen aurreko errektore Juan Ignazio Perez Iglesiasen garaian eta haren jarraitzailea dela entzun behar izan zuen kargurako hautagaitza aurkeztu zuenetik bertatik. Unibertsitate eredu bera dute biek ere, nahiz eta kudeaketa estilo ezberdinak dituzten. Goirizelaiak aitortu du aurrekoaren lana jarraitu nahiko lukeela, baina kontinuitasorik gabe.

7. or.

Eztabaida: Internet, musikaren azken iraultza

Internet, mp3, e-mule, i-pod... zalantzarik ez dago musika kontsumitzeko moduak errotik aldatu direla azken urteetan. Baina gazteek inoiz baino musika gehiago kontsumitzen duten garai haue-tan, musika industria krisialdi larria bizitzen ari da. “CDak eta DVDak Internet bidez doan eskuratzeko aukera izanda, zergatik ordaindu behar?”, pentsatzen dute kontsumitzaile askok. Musika eta zinema munduko profesionalek beste uste bat dute. Lau adituren iritzia bildu ditugu gurerara.

15. or.

13

**Tartekien
antolaeraz eta
puntuazioaz**
Iñigo Roque

22


**Internet eta Sare
Sozialak**
Arkaitz Zubiaga

24

**Toribio
Etxebarria eta
euskara:
liberalak eta
sozialistak**
Antxon Narbaiza

Erreportajea: Geneen manipulazioa, etorkizuneko medizina?

Genetikaren arloko azken ikerkuntzei esker, orain artean sendabiderik ez zuten hainbat gaixotasun osatu ahal izango diren itzaropena sortu da. Alzheimerra, diabetesa, Parkinsona, miokardioko infartua... dira horietako batzuk. Terapia genetiko desberdinak dira horretarako bidea, baina teknika horiek aurkari sutsuak dituzte, izan ere, gizakietan baliaitu ahal izateko ikerkuntzan giza enbrioak erabili beharko liratekeelako. Esperantzaren atea edo naturaren aurkako iraina?



17. or.

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

zerbaitetan
laguntzerik
bai ?



PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lanlidaiek:
Bego Aierdi, Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Eburne Asensio, Urtzi Barrenetxea, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Javier Erize, Irene Fernández, Aitor Gorostiza, Jesús Larrñaga, Luma, Begoña Minaur, Antxon Narbaiza, Miren Ormaetxea, Nerea Pikabea, Iñigo Roque, Amaia Ugartemendia, Iñaki Villoslada, Arkaitz Zubiaga

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. www.ivap.euskadi.net

PERTSONAIA

Maria Bayo, sopranoa:

“Opera bezalako genero hain konplexua ulertzeko entzuleak prestatu egin behar du alde zurreratik”



Argazkia: Javier Salas

Mundu guztian ezaguna da Maria Bayo soprano nafarra. Fiteron jaio zen, baina gaur egun Frantzia bizi da. Zintruenigoko abesbatza eta Orfeon Pamplonesen eman zituen lehen urratsak kantari gisa. Musika estilo zehatz batekin lotzerik ez du nahi, era guztietako doinuak eta pertsonaiak kantatzea gustatzen baitzaio. Hala ere, oso gogoko du Mozart. Duela bost urte jaiotako bere alaba bakarrari Mozarten Idomeneo obra konplexua baten izena jarri zion: Ilia.

Nolatan sartu zinen kantaren munduan?

Txikitatik gustukoa izan dut kantatzea. Nire aita jotak kantatzen entzuten nuen. Gitarra klasikoa ikasi nahi izan nuen Iruñeko Kontserbatorioan, baina ez zegoen tokirik eta kantua ikasten hasi nintzen. Nire ahotsa ezagutzen hasi nintzen, baina, batez ere, ahotsa teknika sendo batean oinarritzen dela ikasi nuen.

Zer izan da arrakastarako giltza?

Arrakastaren %5 ahotsak ematen dizu eta gainontzeko %95a etengabeko lanaren ondorioz etortzen da. Egunero ikasi behar da, berriro eta daukazu onena eman agertokian. Zortea ere faktore garrantzitsua da, baina horrelako ibilbide bat egiteko ezin zara zortea etxeko atera etorri zain egon.

Mozart izan da gehien kantatu duzun musikagilea. Zerk erakartzen zaitu gehien konpositore austriarrarengandik?

Mozart, Bach bezalaxe, konpositore aparta izan da eta hala izaten jarraituko du datozen mendeetan ere. Bere musikak hunkitu egiten nau oraindik ere, oso ongi definitzen baitu gizakia. Oso ongi ezagutzen zuen emakumeen psikologia. Ahotsarentzat idatzitakoa gustuko dut, nire ezaugarrietara oso ongi egokitzen da, baina batez ere asko gozatzen dut bere doinuak kantatzean. Modu naturalean kantatu behar da bere musika, eta hortxe dago zailtasuna. Horretarako teknika ona behar da.

Zartzueta eta barroko espainiarra ezagutzera ematea izan da zure erronka. Zer du berezia musika horrek?

Gure kultur ondarea da. Babestu eta zabaldu egin behar dugu. Literes, Durón, Torres, Nebra –gure Handel espainiarra–, Rodríguez de Hita, etab. ezagutzera eman behar ditugu.

Ez omen zaizu errepertorio zehatz batekin lotzea gustatzen. Zergatik? Kantari batek denetik kantatzeko gaitasuna du?

Denetik, sekula ez. Zure ahotsaren izaerak mugatu egiten zaitu. Ez dut garai edo estetika zehatz bati lotuta egon nahi, baina beti errespetua izan diot nire kanturako tresnari. Kontuan izan behar dut zein den nire bokaliteta eta zein diren nire ahotsaren mugak. *Mozartiana* edo *barroko* bezalako etiketak ez zaizkit gustatzen, murriztaileak baitira. Horiez gain, bestelako musika mota bat ere kantatzen dut: Rossini, opera frantsesa, zartzueta, oratorioa, etab. Gero eta gehiago interesatzen zait XX. mendea. Azken batean, nire bokalitatera ongi egokitzen den musika oro abestu nahi dut. Pertsonaia desberdinen larruan sartzea ere gogoko dut.

Batzuetan ematen du opera ez dela gizarte maila guztietara heltzen. Zer egin daiteke opera ezagutarazteko?

Opera bezalako genero hain konplexua ulertzeko, entzuleak prestatu egin behar du alde zurreratik. Entzun behar dugun opera hori ulertzeko klabeak ezagutzen baditugu, gozamina handiagoa da. Arte guztietan bezala, obra batzuk errazagoak dira eta horiek entzunez has daiteke opera maitatzen. Hedapen gehiago edo prezio merkeagoak eskatzea bada kontua, orduan ezagutaraztearekin ados nago, baina kalitatea eta zorrotasuna ezin dira sekula zalantzan jarri.

Etorkizunari begira, ze proiektu dituzu esku artean? Bete ez duzun ametsen bat ba al duzu?

Egunero eduki behar ditugu ametsak eta proiektuak, horrek bizirik eta ilusioarekin egoten laguntzen digu eta artista gisa hazten. Beti dago ezagutzen ez dugun musika berria, paper berriak, antzoki, hiri eta entzule berriak. Horrela, pixkanaka, aurrera doa gure ibilbidea.

Nerea Pikabea
Kazetaria

Izena eta izana

Den guztiak izena duela? “Gezur hori ez da egia” esango du baten batek. Munduko hizkuntza guztien eta hiztegi guztien artean ez dute behar beste izenik mundu honetan diren izaki guztientzat, mundu honetako gauza, animalia eta lagun bakoitzari izen bana, berezia, berea, jartzeko.

Santiago bideko izarrak milioika eta milioika dira, denak dute izena, *izarra*, izen arrunta, guztientzat bera, baina gutxi dira beren izen bereziaren jabeak. Amazoniako ibai handiek eta oihanek, asko izan arren, badute bakoitzak bere izen berezia, nahiz eta guk ez ezagutu. Oihan haietako zuhaitz-motek ere bai, bi gainera: arrunta eta zientifikoa. Ez ordea mota horietako zuhaitz bakoitzak, ez eta hemengo basoetako pinu bakoitzak ere, pinu gorria edo *pinus silvestris* izan zein intsinisa edo *pinus radiata* izan; ez, ez dute. Bide batez: bai gizonak bai andreak *homo sapiens* omen gara, *homo* eta *sapiens*. Gaur dozena bat antxoa jan badituzu, antxoak jan dituzu, egia da, hamabi *engraulis encrasicolus* jan dituzu; txitxarro errea jan baduzu, berriz, *trachurus trachurus* izango zen edo *trachurus pictoratus* edo... Gure aitonaren sasoiko arrantzaleek jakin izan balute zer jaten zuten! Baina, zein izen zuten hamabi antxoa horietako bakoitzak?, zein txitxarroak? Jarri izena banan-banan euliei, txindurriei, birusei... Horretaraino gabe, Antton bakarra utzi eta beste Antton guztiei bakoitzari izen berezia jarri beharko balitzaieke, ederra genuke! Metodoa ere bilatu beharko genuke: Antton, Bantton, Cantton, Dantton... Eta Joxe, Amaia, Maria... bakoitzari, orduan bai!

Denentzat ailegatzen ez, eta hala ere, izena dugunok alferrik dugu batzuetan. Esate baterako, urrutiko gauzek, bistaz berezi ezin ditugunean, galdu egiten dute beren izena, arrunta ere bai. “Zer da hango hura: ahuntza, fraidea, meta, postaria?” Fraidea bada edo postaria bada, bai, badu izena. Ahuntzak ere

bai, etxe inguruan bizi bada; mendian bizi bada, nekez. Metak ez, metak ez du bere izenik, ez eta zientifikorik ere.

Maite, Itsaso, Karmelo, Manu e.a., jendetzaren zurrumbiloak harrapatu eta urtuta dituenean, izenik gabeak ez ezik, ezer ez dira kanpotik begira daudenentzat. Zer dira, bada, *txinatutako* = jendez betetako futbol zelaietako ikusleak telebistari begira daudenentzat?

Izena zerbait adierazteko hitza bada, lagunen izenek behar bezala adierazten al dute lagun horien nortasuna? Bat datoz izena eta izana? Ez ezinbestean. (Oharra: *laguna* diodanean *personaz* ari naiz, adiskidea izan edo ez; lehen *kristaua* ere esaten zen, gaur egun gutxi. Erakusten al zaie euskaldunberri-gaiei *kristau* hitzaren esanahi hori?)

Egia da Sendoa guztiak ez direla sendoak; ezagutzen ditut Edurne eta Zuriñe beltzaranak; badira halako xarmarik gabeko Loreak, baita atsegin askoak ere; Aketz aketzen bat ere izango dela ez dudarik egin; Ekaitz latzak bezain lasaiak eta bareak, Zigor onberak, beti kontu tristea besterik ez duen Alai, nondarra den ez dakien Aberri, erosotasun goxoan bizi den Iraultza... Karlosek azkarra, argia esan nahi omen du, Eufemiok hitz onekoa, Hipolitok harrizko zaldia, Gregoriok ernaia...

Anabaptistek arrazoi. Haiek esaten zuten jaioberritako bataioak, artean ezaguerarik ez zutenen bataioak, ez zuela balio, alferrikakoa zela, ezaguera nahitaezkoa zela bataiatzeko. Izen egokia ipintzeko ere ezaguera beharko litzateke, izena jaso behar duena nolakoa den jakin beharko luke gizar-teak. Baina bitartean zer deitu?

Kaxildo Alkorta, laguna

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



Gardentasuna islatzen

EZ DA NAHIKOA ZESARREN EMAZTEA ZINTZOA IZATEA: zintzoa dela eman egin behar du. Eta Administrazioak ere, berdin.

Gizarteari zerbitzu ematea du helburu Administrazioak. Zerbitzu hori emateko hainbat prozedura ezarrita ditu arau bidez, eta horietan Administrazioak legezketasuna eta gardentasuna erakutsi behar du. Tamalez, ohituraren ohituraz, eta, beharbada, araudia zorrotz betetzeko beharrak eraginda, bitartekoak helburu bihurtu ohi dira, prozedura betetzeak nagusitasuna hartzen du eta azken helburua lausotuta gelditzen da.

Horren adibide franko izaten dira, zoritxarrez, administrazio idazkien eremuan: komunikazio helburua duten egintzak izaera galduta eta izapide huts bihurtuta ikusten dira sarri, komunikazio beharrari baino izapidea betetzeari ematen baitzaio garrantzi handiagoa.

Adibide praktikoa batera ekarriko dugu hori guzti hori. Demagun balizko erakunde batek (esaterako, udal batek) iragarki hau argitaratu duela egunkarietan, hemen dituen neurri berberetan:

U D A L G O R E N A	
IRAGARKIA	
ORTUALDE	Udaleko Alkatetza-Lehendakariak deialdi publikoa egitea erabaki du informazio zientziatiko lizentziatu bat, kazetaritza adarreako edo kazetaritza lizentziatua, bitarteko langilea izendatzeko, 'Ortualdeko Udaleko erakundeen komunikazio politikan laguntzea' izeneko egitaraua garatu ahal izateko. Hasiera batean, egitaraua urtebeteko epean burutuko dela uste da.
	Iragarki hau argitaratu eta hurrengo 8 egun naturaletan jasotako eskabideak onartuko dira. Instantziak Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta korporazioaren Erregistro Nagusian bulego orduetan aurkeztuz, edota Herri Administrazioen Erregimen Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko indarrean den Legearen 38-4 artikuluan zehaztutako beste edozein prozedura baliatuz (urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldarazitako azaroaren 26ko 30/92 Legea) egingo da eskaria.
	Dagokion deialdia eraentzeko onartu diren oinarriak Ortualdeko Udaleko Ediktuen Ohoiltzan eta www.ortualde.org web orrian jarri dira jendaurrean.
Era berean, interesatuek deialdi honi buruzko informazioa Ortualdeko Udaleko GGBB eta Herritarren Segurtasuna Arloan (Udaletxeko 5. solairua), Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (alboko eraikineko beheko solairua) eta web orrian jaso dezakete.	
Ortualde, 2009ko urtarrilaren 23a. ALKATE-LEHENDAKARIA	

Begia nekatu nahi ez duenarentzat, hona edukia: udal horrek kazetari lanpostua eskaintzen du, bitarteko langile izendatuta, urtebeterako udalaren komunikazio politikan laguntzeko. Iragarkia, ohi den bezala, egunkariko orrialdearen beal-dean kokatu da, beste iragarki batzuen aldean. Letra txikiegia dauka eta testua luzeegia da. Begi kolpe batez ez gara ohar-tzen informazioaren helburuaz, izenbururik ez baitu (bide batez, "iragarki" hitza izenburu egokia al da iragarki batean?). Eduki nagusiak ez daude fokalizatuta, nabarmenduta, datu horiek esaldietan txertatuta, "ezkutatuta" baitaude; hortaz, informazioa bilatu eta atera egin behar da. Beharbada, datu asko beharrezkoak dira, baina... den-denak behar ote dira? Eta ezin ote da dena laburrago azaldu, informazioa sintetizaturik?

Aparteko ahalegina eskatzen zaio irakurleari. Nekez joko du iragarkira, erakargarria ez baita. Izan ere, kontuan hartu behar da egunkarietan beste testu askorekin lehian izango dela iragarkia: egunkaria oso-osorik irakurtzen ez dugunez, irakurleok nolabaiteko galbahe lana egiten dugu eta gure begien arreta erakartzen duten testuetara jotzen dugu aurrena. Eta, aitzitik, bazter uzten dugu gure begietarako argia edo txukuna ez dena, korapilatsuegia edo deserosoa dirudiena.

Hori guztia dela eta, ulertzekoa da irakurleak deseredu gisa dugun iragarkia irakurri gabe uztea. Eta, hartara, erakundeak porrot egiten du: ez du lortzen iragarkiaren bidez lortu behar zuena; ez da benetan ezer iragarri, zabaldu beharreko informazioa zabaldu ez baita.

Beharbada, baten batek esango du jendaurrean ipini egin dela, eta hori nahikoa dela legea edo prozedura betetzeko. Bai... eta ez. Informazioa jendaurrean plazaratzea ez baita helburua, bitartekoa baizik; informazioa jendartean zabaltzea da benetako helburua, ez bakarrik prozedura jakin bat betetzea; eta, beraz, informazioa zabaltzera iristen ez bagara, helburua erdietsi gabe geratzen da, bitarteko desegokia erabili da-eta.

Izan ere, etxe barrurako pentsatuta egin da iragarkia, izapide hutsala bihurtu baita komunikazio egintza, prozedurazko jokabide soila, prozeduraren atzean bete beharreko helburu bat badagoela ahaztuta.

Eta horren ondorioak ez dira makalak... Alde bate-tik, lan eskaintza egin da, baina balizko interesdu-nengana iritsi barik. Eta helburua baldin bazen hautagai prestatuena edo gaituena hartzea, ahalik eta interesdun gehienengana iritsi beharko genukeen, hautaketa egokiena egiteko aukerak ahalik eta handienak izan zitezten. Aitzitik, gutxi ohartu direnez iragarkiaz, gutxi aurkeztuko dira, eta deialdiaren eraginkortasuna kolokan jarriko da, lan eskaintza ia oharkabean argitaratu baita. Baina, bestaldetik, larriena da beranduegi ohar-tzen diren interesdunek ez dutela izen emateko aukerarik izango eta, ondorioz, euren burua udalaren jokaera okerrak kaltetuta ikusi-siko dute, mesfidantzaz begiratuiko diote erakundeari, eta azken horrek zilegitasuna galduko du herritarren aurrean.

Gauzak bestela egin daitezke, eta egunero-edo ikus daitezke bestelako jokamoldeak iragarkien esparruan, orain arte hizpide izan dugun iragarkiaren ondoan. Adibidez, honako iragarki hau, zertan eta antzeko lanpostu eskaintza iragartzen:

**Basurderrekako Berbak
KAZETARIA behar du:**

Eskaintzen da:

- Etorbizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera.

Eskatzen da:

- Kazetaritzan, Euskal Filologian edo Historian lizentziaduna edo ikasle izatea.

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea.
- XXX programa erabiltzen jakitea.
- Autoa izatea.
- Hizkuntzak jakitea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.
- Diseinu lanak egiten jakitea.

**Bidali zure curriculuma helbide elektronikoa honetara:
basurderreka@basurderrekakoberba.info**

Hasierako iragarkiaren aldean jarrita, erraz asmatuko dugu zein irakurriko den eta zein utziko den irakurri gabe. Egitura arras bestelakoa du azkenak: izenburua dauka, informazio multzoak ondo sailkatuta eta nabarmenduta daude, erraz agertzen da iragarlea eta iragarritakoa, argi daude eskaintzak, baldintzak eta meritua, argi ikusten da nora bidali behar den eskaera. Soberako informaziorik ez dago. Dena begi kolpe batez antzematen dugu, diseinua eraginkorra baita eta informazioa sintetizatuta eta ondo egituratuta baitago.

Bide berbera har daitezke gure balizko erakundearen iragarkia eraginkorra izan dadin: izenburu esanguratsua jarri, iragarritakoa nabarmendu, informazioa sintetizatu eta sailkatu, multzoak argi nabarmendu (eskatutakoa, eskaintakoa, epea, instantziak aurkezteko era eta tokia, oinarriak eta informazio osagarria eskuratzeko tokiak). Esaterako:

O R T U A L D E	U D A L G O R E N A
	LAN ESKAINTZA: KAZETARIA
	Eskatzen da: Informazio zientzietako lizentziatua, kazetaritza adarekoa edo kazetaritzan lizentziatua
	Eskaintzen da: Bitarteko langile izendatzea, urtebeterako, Ortualdeko Udaleko erakundearen komunikazio politikan laguntzeko programaren barruan.
	Izen emateko epea: 8 egun naturaleko epea, iragarki hau argitaratzen denetik.
	Instantziak nola eta non: Alkate-Lehendakariari zuzenduta, Udal Erregistro Nagusian aurkeztuta edo 30/92 Legeko 38-4 art. an zehaztutako bideak erabilita.
Oinarriak non: - Ortualdeko Udaleko Ediktuen Oholtzan - www.ortualde.org	
Informazio gehiago: - GGBB eta Herriaren Segurtasuna Arloan (Udaletxeko 5. solairua) - Herriaren Zerbitzuan (alboko eraikineko behean) - www.ortualde.org	
Ortualde, 2009ko urtamilaren 23a	

Honela jokatuko balitz, balizko interesdunak berehala ohartuko lirateke eurentzat garrantzitsua izan litekeen eskaintzaz, erakundeak gardentasuna islatuko luke eta, hartara, zaila izango litzateke Zesarren emazteak maitalaren bat baduela susmatzen hastea...

Aitor Gorostiza
Hizkuntza Normalkuntzako teknikaria

Iñaki Goirizelaia:

“Unibertsitate barik ez dago herri bat garatzeko modurik”



Iñaki Goirizelaia Ordorika (Bilbao, 1958) irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean 1981etik hona. Ingeniaritza Telematikoan katedraduna, irakaskuntzari eta ikerketari emana bizi izan da. Iazko abenduan errektoretzarako hauteskundeak irabazirik, UPV/EHUko errektore berria da urtarriaren 9an izendapen ofiziala jaso zuenez gero. Aurreko agintaldian Bizkaiko Campuseko errektoreorde izan zenak kargurik goren du unibertsitate publikoan: bere gain hartu du datozen lau urte hauetan Euskal Herriko Unibertsitatea kudeatzeko ardura.

Errektoretzara eraman zintuen kanpainan zure eta Juan Ignazio Perezen arteko lotura azpimarratu zuten batek baino gehiagok. Hura errektore zelarik Bizkaiko campuseko errektoreorde izan zinela, haren “eskuin eskua”. Euskal Herriko Unibertsitateak lehengo lepotik du burua?

Iñakok eta biok unibertsitate eredu bera dugula uste dut, baina kudeatzeko estrategia ezberdinak. Gure izaerei dagozkien ezberdintasunak dira –hura barnekoia goa da ni baino, adibidez–, baina, oroz gain, unibertsitate eredu bera dugu, berdin-berdin pentsatzen dugu unibertsitatearen gainean. Iñako errektore izan den garaian berak agindu du. Oso aldi emankorra izan da, gainera. Lau urteetan ez genuen dena ondo egingo –ezinezkoa da hori–, baina agintaldi amaieran larregi sufritu zuen Iñakok, berak hauteskundeak galtzeko estrategia zehatza gauzatu zen, Iñako kargutik kentzea zen helburua... Nik uste dut hark unibertsitatearen alde egingo dako lana historiak epaituko duela, denborak. Espero dut azken hilabeteetan igaro zituen momentu txarrak ahaztea, lortutako emaitza onak gogoratzea.

Aldea markatzeko, “jarraipena” ez da “kontinuis-moa” esan zenuen zuk. Errektore izendatu zaituztelarik, zure taldearen erdia Perez Igleciasen bera da... Zertan bereiziko da zure lana harenetik?

Jarraipena derrigorra da instituzio guztietan. Ezin da instituzio batean lanean hasi eta aurretik zegoen guztia apurtu. Jarraipe-

na behar da. Esaterako, baditugu zenbait proiektu, lehengo agintalditik datozenak. Dударik gabe, horiek aurrera eramaten saiatuko gara. Beste asmo batzuk, aldiz, berriak dira, eta horiek ere gauzatzeko ahaleginduko gara. Gure errektore taldearen erdia lehengoa da, bai, egia da, baina hori bezain egia da beste erdia berria dela. Unibertsitatean esperientzia handiko pertsonak ditugu, batetik, eta berriak, bestetik. Horiek fresku-

ra izugarria emango digute, ideia berri interesgarriak, kudeaketa ikusmolde ezberdinak... Jende berriak gure lehengo dinamika apurtu eta indarberrituko du. Jarraipena bai, beraz, kontinuis-morik gabe. Bidegabekeria galanta litzateke aurreko taldeak egin duen lana guztiz apurtzea. Era berean, proiektu berriak ez diseinatzea ere ez litzateke zuzena izango.

Asmoa lehengoa ei da, hau da, gizarteak dituen unibertsitate mailako pres-takuntza beharrei erantzutea: titulu gehiago eskaintzea, euskararen erabilera areagotzea, finantzaketa

hobetzea, goi mailako tituludunak merkaturatzea eta ikerketaren alde apustu egitea...

Horiek dira gure erronkak, eta unibertsitate baten helburu izan behar dutenak. Unibertsitate hau berri xamarra da oraindik. Urte batzuk badaramatzagu, bai, baina munduan prestigio handieneko unibertsitateen aldean, hasi berriak gara. Berrehun, hirurehun, laurehun urte dituzte unibertsitate batzuek. Guk, berrogei ere ez oraindik. Unibertsitatea eraikitzen ari gara, ibilbide luzea daukagu aurretik. Besteak beste, ikerketa bultzatu. Badihardugu horretan, baditugu

“Oso begi onez ikusiko nuke urtean behin, edo birritan, errektorea Legebiltzarrean azaltzea, unibertsitateari buruz hitz egiteko”

ikertzaileak –batzuk oso onak, mundu mailan–, baina ez gaude gurako nukkeen egoeran. Horregatik, Ikerketaren Plan Gidaria, adibidez. Eta egia da diru gehiago ere eskatzen dugula. Eskatzen dugu, baina eman ere egiten du unibertsitateak: zientzialariak eta ikertzaileak sortzen dituen instituzio bakarra gara. Munduan ez dago herri bat eraikitzerik, goi mailako tituludunik, ikertzailearik eta zientzialaririk gabe, unibertsitaterik gabe. Zuk aipatu dituzunak –tituluak, euskara, finantzaketa, goi mailako tituludunak...– unibertsitatearen asmoetan ziren orain dela hamar urte, eta asmo izaten jarraitzen dute.

Utzidazu euskarari tarte bat egiten. Gero baino gero gehiago dira euskaraz matrikulatzen diren ikasleak. Gero baino gero gehiago, euskaraz egin daitezkeen ikasketak. Posible da eskaintzari eustea, edota hura hobetzea, eta Bolognako Ituna betetzea?


Europar unibertsitateen arteko goi espazioa sortu behar da. Euskara? Orain eskaintzen duguna eskaintzen jarraituko dugu, batere zalantzarik gabe. Gainera, unibertsitate honek badu Euskararen Plan Gidaria. Horren arabera, gradu ikasketa guztiak euskaraz eta gaztelaniaz eman behar dira. Era berean dio, graduondokoetan euskararen eta gaztelaniaren presentziak parekoa izan behar duela. Arlo horretan, guk testuak eta tesiak euskaraz produzitzeko apustua eginda daukagu... Bologna ez da arriskua euskararentzat. Alderantziz, uste dut aukera ederra dugula pausoak emateko. Euskara, gaztelania... beste hizkuntzak sartzea ere oso garrantzitsua da: ez al da posible goi mailako tituludun batek euskara, gaztelania, ingelesa eta, ahal bada, beste hizkuntzaren bat jakitea? Uste dut ikuspegi hori oso interesgarria dela euskaldunontzat: Europan, edozein tokitan eta edozein pertsonaren aurrean, geure ideia, pentsamendu edo gogoetak azaltzeko gai izatea gauza handia litzateke euskaldunontzat. Euskaldunak gara, eta munduan gaude. Horra, esate baterako, egiten ditugun testuak. Mundu osoko unibertsitateetan erreferentziatzko obrak direnak, guk euskaraz daukagu. Guk egiten ez badugu, beste inork ez du lan hori egingo.

Ibarretxe lehendakariak hartu zintuelarik, UPV/EHU nazioartearen “erreferentzia” izan dadin eta “gizartean sustraitua” nahi zenuela adierazi zenuen...

Ezagutza han eta hemen sortzen da, unibertsala da. Gure kasuan, unibertsitatean zer edo zer sortzen dugunean, munduko unibertsitate onenak izan behar ditugu erreferentzia. UPV/EHU gaztea da oraindik, beste unibertsitate askorekin alderatuz gero. Nazioartearen erreferentzia izan nahia ametsa da gaur egun, baina amets izatea nahitaezkoa da hura egia bihurtzeko. Ametsik ez baduzu, ez duzu ezer gauzatuko.

Ajuria Eneko ekitaldian konfiantza eta errespetua eskatu zenizkion Jaurlaritzari... Jaurlaritzarekiko akordioak autonomiaren galera ote dakarren jakin nahiko nuke...

Ez derrigorrean. Ondo jakin behar dugu zer dagokion Jaurlaritzari, eta zer UPV/EHUri. Jaurlaritzarekin akordioak izatea garrantzitsua da, finantza arloan zein beste batzuetan. Delako akordioaren bidez, dirua izango dugu, guk kudeatuko duguna, eta, ondoren, kontu eman beharko dugu. Gu gizartearen zerbitzura gaude, eta oso begi onez ikusiko nuke urtean behin, edo birritan, errektorea Legebiltzarrean azaltzea, unibertsitateari buruz hitz egiteko. Ez arazo politikoren bat sortzen denean. Orduan, guretzat hain inportantea ez den gai bati buruz hitz egiteko deitzen digute, haiek garrantzi handia ematen diotelako. Gure ustez, askoz premiazkoagoa da unibertsitate ereduaren gainean hitz egitea, edo kudeaketaren berri ematea... Erakundeen arteko harremanak ezinbestean egon behar dira, harreman instituzionalak, eta, nire eskarmen-tuaren arabera, harreman onak izan dira; erakunde bakoitzak bere lana zuzen bete du. Ez dut kexarik.



Unibertsitateaz hitz egiten denean, maiz, gure artean, zientziak, teknologiaz eta berrikuntzaz ari garela iruditzen zait, bazterrean uzten ditugula pentsamendua, artea, humanitateak... Zer diozu?

Kanpotik begiratuta baliteke irudipen hori izatea. Gure unibertsitatea oso zabala da, arlo batzuk beste batzuk baino gehiago aitzinatu ditugu, baina ez daukat zalantzarik gure lanaz: zientzia eta ezagutza sortzea arlo guztietan. Horri dagokionez, hurrengo hilabeteetan Ikerketa Mapa zehaztu nahi dugu, arlo bakoitzean zer egiten den, zertan garen indartsu, eta, ondorioz, erabakiak hartu. Egia da Zientzia Esperimetaletan, Teknologian eta beste zenbait arlotan indartsuak garela, ikertzaile talde sendoak ditugula, erreferenteak garela nazioartean, baina beste zenbaitetan, aldiz, ez gaude egoera horretan. Ahalegin berezia egin beharko dugu daukagun jende ona bultzatzeko. Asmo hori gogoan, Ikerketa Errektoretzaren barruan, zuzendaritza berri bat sortu nahi dugu, Azalera datorren Ikerketa Bultzatzeko Zuzendaritza, alegia. Hain emankorrak ez diren arloetan iker-tzaile talde berriak sortzea izango da helburua.

Errektore hautatu zintuztelarik, eskuz egin zen botoen kontatzea. Zu, ostera, boto elektronikoa lantzen jarduna zara... Kontraesan galanta iruditzen zait...

Aurreko hauteskundeetan erabili zen boto elektronikoa. Oraingoan, berriz, ez. Hori ez dago unibertsitatearen esku. Bai, guk boto elektronikoa inguruan egin genuen ikerketa lana. Orain ere horretan ari gara nire ikerketa taldean. Boto elektronikoa dela eta, prozesuak gobernuaren inplikazioa eskatzen du, hauteskontzi elektronikoa gobernuarenak dira eta. Azkeneko hauteskunde hauetan konplikazioen bat izan zen, ordea, eta ez ginen sistemaz baliatu. Beste barik. Erabili-ko dugu hurrengoan.

Orain dela lau urte, lau urte zeramatzan UPV/EHUK aurrekontuak luzatu eta luzatu, 30 milioi euroko

defizita 260 milioiko aurrekontua izanda... Lau urte geroago, 450 milioi euroko aurrekontua eta diru egoera saneatua zuen... Ondorioz, hainbat urtetarako Inbertsio Planik handiena egin du UPV/EHUK, eta %60 hazi da ikerketarako dirua...

Aurrerapauso itzela eman dugu, baina ez gaude egon behar dugun egoeran. Orain dela gutxi aurkeztu dugu Gobernu Kontseiluan aurrekontu proiektu berria eta 470 milioi eurotan gabil-tza. Aurrerapauso handia eman dugun arren, ikerketan, adibidez, diru gehiago behar da. Ezin zaigu eskatu MIT edo Stanfordeko unibertsitateen produktibitatea, haien pareko inbertsiorik ez badugu. Europak unibertsitateetan egiten duen inbertsiotik urrun gaude oraindik. Baita Espainiak egiten duenetik ere. Zulo hori estali beharra daukagu. Ikertzaile taldeak ditugu, laguntza eman behar diegu, prestakuntza...

Gauzak horrela, non nahi zenuke UPV/EHU lau urte barru?

Titulazio mapa berria abiarazita nahiko nuke, gizarteak behar duen goi mailako formazioari erantzun egokia emango diona; gradu ikasketetan ez ezik, graduondoko eta doktorego-ikastaroetan ere bai. Nahiko nuke gure ikerketa maila haztea. Nahiko nuke UPV/EHU nazioarteko rankingetan agertzea, lehenengo bostehunetan azaltzea, nahiz eta oso zaila den. Nahiko nuke euskara eta gaztelania maila berean izatea, euskaraz bizi nahi duenak unibertsitatean arazorik izan ez dezan. Ingelesa hizkuntza nahiko normala izatea nahiko nuke, gradu eta graduondokoetan. Nahiko nuke administrazio eta zerbitzuetako langileen artean (AZP) lan egoera hobea izatea, beste lan deialdi bat egitea; arlo horretan langile kopurua asko haztea nahiko nuke, arazo larria daukagu eta; behar-beharrezko ditugu 400 langile gehiago. Nahiko nuke ikasleen parte hartzea areagotzea, unibertsitatea euren dela senti dezaten. Nahiko nuke bizitza akademikoa eta ikasleen bizitza, biak ikusi campusetan; bizitzeko tokiak unibertsitateetan. Nahiko nuke, gustatuko litzaidake. Badakit ez dela posible, baina horixe gustatuko litzaidake.

Horiatarik zer lortuko duzue?

Dena lortzea ezinezkoa da, badakit. Horiatarik batzuk lortuz gero, eta beste batzuk bideratzen asmatzen badugu, gustura joango naiz etxerantz!

Seguru da lau urte igaro eta etxerantz joango zarena?

Ez dakit. Ikusi egin behar. Baina hauteskunde prozesua oso gogorra egin zait eta beste prozesu bat gainditzea... ez dakit hortik igaro gura dudana. Presioa, nekea... Unibertsitateko irakaslea naiz eta horixe gustatzen zait, nahiz eta orain errektorea naizen. Oso gustura nago, ohore bat da, irakasle batek egin ditzakeen lanen artean inportanteenetakoa da, baina irakasle eta ikertzaile izatea asko gustatzen zait. Lau urte ditut aurrean, lau urteok amaitzen direnean hitz egingo dugu.

Titulazio mapa berria abiarazi nahiko zenuke, ares-tian esan duzunez. Horrekin batera helduko da titulu-en homologazioa ere. Bologna, alegia, eta ikasleen protesta. Zergatik dakar Bologna ikasleen protesta eta ukoa?

Ez da erraz ulertzen. Abantailak, garbi daude. Mehatxuren bat ere izan liteke, baina kasu horretan, mehatxuak irauli eta abantaila bihurtu behar ditugu. Mugikortasuna ekarriko du titulazioen homologatzeak. Euskarak ere ez du galduko prozesu honetan. Euskarak atzera egiten badu, ez da prozesuagatik izango, gauzak txarto egin ditugulako baizik. Ikasleak ez dira konturatu maste-rrak berak ere unibertsitatearen eskaintza publikoaren barruan egingo direla eta, beraz, prezio publikoak izango dituztela, orain arte ez bezala. Geuk nahi dugun titulazio mapa definitzeko auke-ra dugu, gure autonomia erabiliz... Gauzak txarto egiten baditugu, gure errua izango da, ez Bolognarena.

Inbertsio Planaren arabera Santi Mamiñe zelaiaren eta Erakustazokaren orubeetan jarriko da campus teknologikoa. Ikasketa juridiko-ekonomikoak Sarri-ko inguruan, Irakasle Eskola Leioara joango da, Leioan bertan enpresa-unibertsitate multzoa garatu nahi duzue, Medikuntza eta Erizaintza Basurtura... Bilbon UPV/EHU ikus dadin nahi duzue...

Bai. Gaur egun, Bilbon, 12.000 ikasle inguru daude gure unibertsitatean. Santi Mamiñe futbol zelai inguruan, Ingeniaritza eta Medikuntzan, 8.000, gutxi gorabehera. Ikusteko moduko ikasle kopurua, baina ez dira ikusten. Espainian, Salamanca unibertsitate barik ez litzateke Salamanca izango... Esan gura dut Bilbo ez dela unibertsitate hiria. Jakina, hor dago Deustu, baina Euskal Herriko Unibertsitatea ez da ikusten. Hiriarentzat garrantzitsua da unibertsitatea ikusaraztea eta unibertsitatearentzat ere garrantzitsua da, zerbitzuak hobeto kudeatzeko bes-terik ez bada ere. Ez dugu lau urtean lortuko, baina ehun urte barru edo, nahiko nuke jendeak esatea: "Hor dago Euskal Herriko Unibertsitatea". Prestigiokoa, Nobel saridun eta guzti. Ehun urte barru.

Gainerako campusek ez dute horrelako Plan pre-miarik?

Badituzte beharrak, baina ez hain handiak. Araban, adibidez, ikerketa zentroa eraikitzen ari gara, eta etorkizunean Giza Zien-tzien Ikerketa Zentroa ere nahi dugu hemen. Badira zenbait proiektu, abian. Eta, Araban bezala, Ibaetan. Oso harreman ona dugu hango erakundeekin, hala Udalarekin nola Diputazioare-kin, eta Joxe Mari Korta Ikerketa Zentroaren bigarren fasea egingo dugu, Karlos Santamaria eraikina amaitu... Eta, tartean, badira beste hainbat proiektu interesgarri. Bilbon, hala ere, beste campusetan baino premia handiagoa da, zenbait eraikin zeharo zaharkituta daude eta, egoera larrian.

"Unibertsitatea da herri baten giltza". Zuk esana da.

Hala pentsatzen dut. Unibertsitate barik ez dago herri bat gara-tzeko modurik. Azkeneko urte hauetan ekarpen izugarria egin diogu herri honen garapen sozioekonomikoari. Euskal Herria ez litzateke orain ezagutzen dugun herria Euskal Herriko Uniber-tsitatea barik. Unibertsitateak eragin sozial ikaragarria du, giltza da. Eta pentsamenduari dagokionez, unibertsitate barik ez dago goi mailako eztabaidarik.

Miel A. Elustondo
Kazetaria



Mundua on line

Blogak sortzeko plataformak

Blog bat, orokorrean esanda eta gaur egun aski ezaguna denez, istorioak edo artikulua biltzen dituen webgunea da. Blog hitza *web log* terminoaren laburketa da (web egunkaria). Blogaren egileak, blogariak, mezuak bata bestearen atzetik idazten ditu, eta, ondoren, kronologikoki argitaratzen dira blogean. Normalean blog guztien egitura antzekoa izaten da oso: goiko aldean blogaren izenburua agertzen da, zutabe nagusian mezuak eta irakurleen erantzunak, eta, beste zutabe batean, egilearen datuak, estekak, mezuen artxiboa, *tag* edo etiketak, eta kategoriak. Mezuak data eta kategorien arabera sailkatuta azaltzen dira, era errazean aurkitzeko moduan.

Mezuetan, testu-informazioaz aparte, argazkiak, bestelako irudiak, aurkezpenak, animazioak eta bideoak ere txerta daitezke. Multimediazko elementu hauek web-zerbitzari batean kokatu behar dira blogean txertatu baino lehen.

Blog gehienak pertsonalak izaten dira, egile bakar batek idatzita, baina badira talde, elkarte, erakunde eta enpresek sortutakoak ere (adibidez, gure artean oihartzun handia duen **sustatu.com**). Bertan, askatasun osoz, albisteak, iritziak, pasadizoak, eta abar argitara daitezke. Esateko zerbait daukan edonork eduki dezake blog bat. Eta egileak baimena ematen badu, irakurleek iruzkinak gehi ditzakete.

Blogak sortzeko orduan, dohaineko edo ordaindu beharreko plataformak erabil daitezke. Doakoek nahiko zerbitzu ona eta duina ematen dute, eta blog bat eduki nahi duenak plataforma hauetako batera jo eta minutu gutxitan eta biz-pahiru urratsetan blog bat sortu eta idazten has daiteke. Bertan, blogaren itxura pertsonalizatzeko txantiloak eskaintzen dira, editore errazak, irudiak sartzeko baliabiak, bloga gordetzeko espazioa, e.a.

Euskaraz hainbat aukera dago debaldeko blogak sortzeko, hala nola:

Mundua.com

Blogari.net

Blogak.com

Nireblog.com

Kontatzeko zer edo zer edukiz gero, badakizue zer egin.

Luis Elizondo
luis@hegoa.info

Euskararen Gaitasun egiaztagiri guztiak elkarrekin balidatuko dituen Dekretua onartu du Eusko Jaurlaritzak

Onartu berri den otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuak euskarazko egiaztagiri guztiak elkarrekin baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuan uzartu ditu. Dekretu horrek apirilaren 8an onartutakoa egokitu du, orduan kanpo geratu ziren titulazioak sartu baititu. Hezkuntza arloko zenbait titulu dira orain baliokidetu direnak, bai eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak ematen duen EGA eta Euskaltzaindiaren D agiria ere. Baliokidetzatza sistema osatuta geratu da beraz, eta guztira 34 titulu dira Europako Marko Bateratuaren B-1, B-2, C-1, eta C-2 mailekin parekatuta daudenak.

Informazio gehiago: <http://www.euskara.euskadi.net>

III. e-learning jardunaldiak Administrazio Publikoan

2009ko ekainaren 24 eta 25ean, Valladoliden, III. e-learning jardunaldiak egingo dira.

Jardunaldi hauek Gaztela-Leongo Administrazio Publikoko langileen etengabeko formazioaz arduratzen den eskolak (ECLAP) antolatuta ditu.

Bi egun horietarako prestatu den egitarauan honako hauek aurkituko ditugu:

- E-learningen gaineko mahai inguruak.
- Hainbat gairen aurkezpena: gaitasunetan oinarritutako formazioa, gizarte sareak...
- Hitzaldiak: Sugata Mitra jaunarena ("Hole in the Wall" esperimentuaren egilea) eta Moodle plataformaren sortzaile Martin Dougiamas jaunarena, esaterako.

Bukatzeko, jardunaldiaren ondorioak irakurriko dira.


2009-2011: Kulturaren Euskal Behatokiaren aro berria

Kulturaren Euskal Behatokiak 2009an hasi den ziklo berriko jardura esanguratsuenak aurkeztu ditu.

Zeregin horien artean sartzen da artxiboaren gaineko eragiketa berri batekin ondareari lotutako eremuen deskribapena osatzea. Lehenbiziko aldiz, masa kritiko nahikoa egongo da eskaintza kulturalaren egoera ekoizpenaren eta erakustaldien ikuspuntutik ezagutzeko.

Kultura errealitatea aztertzeak eta ezagutzeak berezitasun nabarmenak dituen errealitate bati egokitutako metodologiak, tresnak eta teknologiak kudeatzeko sistema bat izatea eskatzen dute. Deskripziorako estatistika eragiketarik zein azterketa analitikoak gauzatzen eta puntako ikerkuntza eremu buruzko lan sareak prestatzen ari da, hortaz, Kulturaren Euskal Behatokia.

Lagun faltsuak



LAGUN FALTSUAK: BI HIZKUNTZA edo dialektotan antz handia duten baina esanahi desberdina duten bi hitz dira (*faux amis*). Itzulpen okerretarako eta gaizki ulertzetarako bide dira. Eta, horrenbestez, faltsuak ez ezik arriskutsuak ere izan daitezke. Hitz jokoetarako bide izan daitezke hiztun abilaren buru zorrotzean: “Pixka bat es mucho” lemari (sic) –horra hor lagun faltsu baten adibidea, nik neuk egina, inor ez dagoela libre erakusteko– buru zorrotz batek “Pixka bat da asko” leloarekin erantzun zion, lagun faltsu bat maisuki erabiliz. Ni neu telebistako aginteari *teleagintea* esaten ohitu naiz azkenean, *mandoa* non dagoen hamaika bider galdetu ondoren, bera ez zela “*mandazaina*” etxeko batek erantzun zidanean, behorren eta astarraren arteko produktu antzua eta telebista pizteko aparatua gauza desberdinak zirela argi utziz. Adibide horretan lagun faltsuen atzetik interferentzia linguistikoen kasuak egoten direla argi ikus daiteke¹.

Dagoeneko euskarera eta gaztelaniaren arteko adibidetxo batzuk eman ditut eta honezkero irakurleak jakingo du sobran zer diren lagun faltsuak. Euskalkien artean ere bada adibiderik: *bertanek* ez du hurbiltasun-maila bera adierazten toki guztietan eta “bertan ezin da aparkatu” ez da toki guztietan berdin ulertzen. Eskarmentu pixka batez edozein da abila lagun faltsuak ehizatzeke. Dena den, lagun faltsu traidoreak eskarmentu hartuta ikasten dira hobekien, hanka sartzten dugunean menperatzen ez dugun hizkuntza batean eta norbaitek gure akatsaren berri eman eta aurpegia gorriarazten digunean.

Batzuetan hitz bera da bi hizkuntzetan eta esanahi berdinak ditu, baina hizkuntzetako batean esanahi gehiago eduki ditzake: *kalenturak* sukarra esan nahi du, bai Hegoaldeko euskaraz –“*Etikazko sukar edo kalenturarekin dagoen eria*” (batuan *hetika*)– bai gaztelaniaz. Baina, gaztelanian gehiagotan erabiltzen da ezpainetako hotzikara adierazteko. Ingelesez *calenturek* sukar bortitza esan nahi du. Gaztelaniazko *calenturak*, gainera, bestelako esanahiak eduki ditzake, “arriskutsu” xamarrak.

Kontu sanitariotarantz desbideratu nahi dudanez gaia, beste hitz batekin jarraituko dut: *kostipaua*, Hegoaldean, *hotzeria* da, nagusiki, baina ingeles euskaldun batek uler dezake *ido-*

rria gisa (ingeleseko lagun faltsuaz fidatzen bada) eta frantses euskaldunak ere zentzu hori eman diezaioke, frantsesak nahastuta.

Lagun faltsu hauen guztien eraginez hiztunek hanka sar dezakete, baina kontua ez doa harago. Larriago da, ordea, itzulpenaren erruz, erakunde batean esapide berriak asmatzen direnean eta erakunde horretan errakuntza hasten direnean zabaltzen. Arlo sanitarioa utzi gabe, irakurleak jakingo du, gaur egun, osasungintzan enpresaritzaz-ikuspegia ari dela zabaltzen eta gaixoak sendatu beharrean, egiten dena dela “prestar servicios”. Eta, noski, euskaraz badugu lagun faltsu bat: *prestatu*. Aurrekoan entzun nion osasun-erakunde bateko goi-arduradun bati *zerbitzuak prestatzeaz* arduratzen zirela bere erakunde, eta nik nire golkorako pentsatu nuen ea nori mailegatuko zizkieten zerbitzuak, eta ea zein korriturakin? Veneziako merkatariairen moduan itzuli beharko dizkio *prestatutako* zerbitzuak? Akats bera irakurri izan dut Osakidetza web-orrian: “Osasun Sistema Nazionalean Prestaturiko Zerbitzuen erlazioa”. Dena den, Osakidetzan bertan erabilera egokiagoko adibideak badaude: “Osasun zerbitzuak emateagatik kobratu gabe dauden fakturak auzi bidez erreklamatzeko”. Eta Osakidetzatik kanpo ere topa daitezke erabilera okerreko adibideak (minbizia zabaltzen ari dela esango genuke, edo Osakidetza bera ez da izan minbiziaren kokalekua eta haraino metastasi bidez iritsi da. Batek daki!): “Saneamendua eta ura hornitzeko azpiegituraren ezarrera eta ustiapena eta dagozkion zerbitzuak prestatzea” (Gipuzkoako buletina); eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ikerkuntza-gastuen aurrekontuko paragrafo batean: “harremanak sustatu eta zerbitzuak prestatzea”. Esan gabe doa, jasotako guztiak erabilera okerrak direla, baina, horrek ez du esan nahi euskaraz zerbitzuak prestatzea guztiak gaiztoak direnik, zerbitzuak prest jartzea zentzuarekin guztiz zuzena eta zilegia baita, noski, esate baterako: “Erakundeko zerbitzuak prestatzen ari gara erronka berriei erantzuteko”. HALA BIZ.

¹ Fernando Rey-k *Sostiene Pereira* liburua itzultitakoan artikulua interresgarria paratu zuen itzultze-prozesuan topatutako lagun faltsuez eta arazoari emandako irtenbideaz, *Senez* aldizkarian.

Konexioa



Gabon laztana, hor zaude?



...



Maite? Hor zabilta?



...



Maite?



Gabon Jon, barkatu.

Bai, hemen nago
juxtu ordenagailua piztu dudanean
ume txikia hasi da negarrez.
Badakizu...



Arraroa egiten zitzaidan ez erantzutea.
Hemen “konektatua” jartzen zuen
baina erantzuten ez zenuenez
pentsatzen hasia nintzen
ez zenuela nirekin hitz egin nahi



Baina, nola pentsa dezakezu hori?



Ez dakit, gaur, gainera, bulegoan
arraro sumatu zaitut
triste, ilun, oso urrun,
zure pentsamendutan murgilduta



Ez da ezer



Orduan badago zerbait



Beno, kezkak



Etxean? Umeak? Senarra? Gurasoak?



Ez, etxean dena ondo.
Beno, badakizu, beti bezala...



Orduan?



Zalantzak, Jon, zalantzak



Zer dela eta?



Gure artekoa...
Bakarrik hitz egin dezakegu, lasai,
e-mailen bidez
telefono bidezko mezuen bidez edo
dixosozko messenger honen bidez...
hori bai, gero, dena ezabatzeotan eta
honi guztiari “hitz egitea” dei
badiezaiokegu...



Bai, ulertzen dizut.
Niri ere gero eta zailago egiten zait
egoera hau
bulegoan ikusten zaitudanean
besarkatu nahi zintuzket, musukatu,
laztandu
lankideen aurrean, berdin zait.
Etxean ere, zu aurkituko zaitudala
amesten dut
gauean, ohean, ondoan dudana gorputza
zurea dela pentsatzen dut...



Jon...



eta “zu” besarkatzeko eskua luzatzen
dudanean
ahots zakar batek gogorarazten dit
norekin nagoen...



Jon...



Maite zaitut.
Gero eta zailago egiten zait
zu gabe pasatzen dudana denbora



Biok dakigu gure artekoa ez dela
posible
askotan mintzatu gara horretaz
bi familia desegin beharko genituzke
gure erokeriagatik



Maiteminduta egotea erokeria da?
Maite duzun pertsonarekin egunero eta
orduoro egon nahi izatea erokeria da?



Jon, neuk ere zulo handi bat
sentitzen dut
zu ikusten ez zaitudanean
jasanezina egiten zait etxean
sartzea eta...
berarekin egon behar izatea



Orduan, zergatik jarraitzen
dugu honela?
ez zu ez ni ez gaude gustura
bikotekidearekin
zergatik ez dugu konpontzen
zentsugabeko egoera hau?



Askotan aipatu dugu,
umeengatik



Eta gu?
guk ez dugu merezi
zoriontsu izatea?
gure zoriontasun bakarra
izan behar da
lanean, ezkutuan,
elkar ikustea eta maitatzea?
besterik ez dugu merezi?



Lasai, Jon, dena
konponduko da,
aurkituko dugu
irtenbideren bat



Erantzun galdera honi, Maite
umerik izango ez bagenu
senarra utziko zenuke
nirekin egoteko?



...



Maite?



...



Maite?

**Konexioa galdu da
Saiatu berriro konektatzen**

**Edurne Asensio
Idazlea**

Tartekien antolaeraz eta puntuazioaz

1. Sarrera

Testuko diskurtsoaren hari nagusian txertatzen diren testu zatiak dira tartekiak. Informazio erantsia, argibideak, egilearen iritzia eta, oro har, testuaren hari nagusitik kanpoko oharrak sartzen dituzte. Horiek gabe ere esaldiek badute esanahi bete, informazioa galdu arren. Perpaus osoak izan daitezke, sintagmak edo hitz soilak. Solasaldi eta antzerki-testuetako akotazioak ere landu genitzake, baina horiek beste baterako utziko ditugu.

Grafikoki bi puntuazio-markaren artean ageri dira. Idazleak, horretarako, aukeran ditu komak, parentesiak, marra luzeak eta parentesi zuzenak.

2. Puntuazio-markak

2.1. Komak

Lau marketan gutxien nabarmentzen dena da, eta, gainera, beste erabilera ugari du (tartekiak zedarritzeaz gainera). Hargatik, tarteki labur eta bakunetarako soilik da egokia, bestela oharkabean pasatzen baita.

- (1) Filipe Oihanburuk, Erikaren aitak, konpondu zituen herriko etxeko altzari zaharrak.
- (2) Abuztuaren 19an, asteazkenarekin, hasiko dira herriko jaiak.

Tartekiaren barruan beste komarik badago, ordea, tartekia ez da «ikusten», eta, hala, beste puntuazio-marka batzuk erabili behar dira.

- (3) a. *Klima-aldaketaren ondorioetako batzuk, lehorreak, uholdeak edo glaziarren urteza, jasaten ari gara.
b. Klima-aldaketaren ondorioetako batzuk (lehorreak, uholdeak edo glaziarren urteza) jasaten ari gara.

2.2. Marra luzeak

Komak baino gehiago nabarmentzen dira, baina parentesiak baino gutxiago. Testu teknikoetan bakan erabiltzen dira. Kontuan izan, halaber, tartekietako marra luzeak handiagoak direla hitz elkartuetako marratxoak baino; elkarrizketetako marren neurrikoak dira (alabaina, eskuliburu batzuen arabera, elkarrizketetako marrak luzeagoak dira).

Oso erabilgarriak dira tarteki konplexuetan, batez ere lokailu edo testu-antolatzailearen bat tartean bada, aise argitzen baitute lokailua aurreko testu zatiari edo ondokoari dagokion.

- (4) a. *Abantaila batzuk dituzte: puntuazio estandarizatuak eskaintzen dituzte, pasatzen eta zuzentzen errazak dira, *beraz, ebaluazioaren kosteak murriztu egiten dira*, eta posible egiten dute konstruktio bera tresna batekin baino gehiagorekin ebaluatzea.
b. Abantaila batzuk dituzte: puntuazio estandarizatuak eskaintzen dituzte, pasatzen eta zuzentzen errazak dira *–beraz, ebaluazioaren kosteak murriztu egiten dira–*, eta posible egiten dute konstruktio bera tresna batekin baino gehiagorekin ebaluatzea.

2.3. Parentesiak

Oso nabarmenak dira. Argiro bereizten dituzte lehen eta bigarren mailako informazioak. Aldera ditzagun, bada, bi puntuazio modu hauek:

- (5) a. Bero sorra, hau da, ura lurruntzeko behar den energia kantitatea, oso altua da, gramoko 0,58 inguru.
b. Bero sorra (hau da, ura lurruntzeko behar den energia kantitatea) oso altua da (gramoko 0,58 inguru).

Marra luzeak bezala, esaldiko tartekirik luzeenetarako edo konplexuenerako erabiltzen dira; izan ere, kutsu bera dute, zenbait estilo-liburuk ausazko bereizkuntzak egin arren. Horretaz gainera, parentesiek badituzte erabilera espezifiko batzuk:

- Bibliografia-erreferentzia ematea. «Musika maitasunaren mantenugai balitz» (Shakespeare, *Hogeigarren gaua*).
- Data-tarteak jasotzea, hiztegi nahiz entziklopedietan. Jesse Owens (1913-1980).
- Aukerako hitzak eskaintzea. Olio ura baino isurkari (likido?) dentsuagoa da.
- Leku-izen bat goragoko zer entitateri dagokion adieraztea. Pernambuco (Brasil).

2.4. Parentesi zuzenak

Hitez hitzeko aipuetan sartutako oharrak edo argibideak jasotzen dituzte; esaterako, testu bat transkribatzean testuan ageri ez den elementu bat aipatu beharra dagoenean.

- (6) Idazleak erakusten digu pertsonaiaren tormentua: lo egin ezinik zegoen, goizean hari [Peterri] esandakoak ezin burutik kenduta.

Irakurleek badakite nor den Peter hori, segurutik lehenago aipatu baita.

Orobat, hitzez hitzeko aipamenetan testu zati bat ezabatu dela adierazteko, parentesi zuzenak eta eten-puntuak erabiltzen dira: [...].

Azkenik, parentesien barruan beste parentesirik sartu behar izanez gero, parentesi zuzena izan beharko du horrek (matematiketan ez bezala).

- (7) Leonardo Sciascia (Racalmuto [Sizilia], 1921)

3. Komunztadura

Artikuluaren hasieran aipatu dugunez, era askotako tartekiak ditugu. Hala, tartekietan sarritan aposizioak ageri dira (testuko aurreko elementu bati lotuta dauden elementuak), eta halakoetan batzuetan komunztadura gorde behar izaten da, Euskaltzaindiak 109. arauan agertu duenez. Arau horretako adibide batzuk aldatu ditugu hona:

- (8) Gure herriko alkateak –musikazale amorratua bera– begi onez ikusi du kontzertu gela berria egiteko proiektua.
(9a) Haren etxean –aski zabala, ene ustez– erraz kabituko gara denok.
(10a) Datorren larunbatean –hilak zortzi– hasiko da ehiza garaia.

Iritziak iritzi, badirudi azken bi adibideetan komunztaduradun formak gabeak bezain zilegi direla.

- (9b) Haren etxean –aski zabalean, ene ustez– erraz kabituko gara denok.
(10b) Datorren larunbatean –hilaren zortzian– hasiko da ehiza garaia.

4. Estilistikako zenbait kontu

4.1. Kokapena

Funtsezkoa da tartekia dagokion lekuan jartzea. Aposizioa denean, gehienetan, aurrekariaren ondotoxoan agertu ohi da, baina ez beti nahitaez.

- (11) a. ?Lan honen helburua da *ADR teknika garrantzitsuenetarikoa* bat aztertzea, *arbitrajea*.
b. Lan honen helburua da *ADR teknika garrantzitsuenetarikoa* bat, *arbitrajea*, aztertzea.

Badirudi absolutiboarekin nahitaezkoa dela kokagune hori (hain markatua ez baita). Beste deklinabide-markek, ordea, erraztu egiten dute aposizioaren mugikortasuna.

- (12) Arkitektoa proiektuaz soilik arduratuko da –alegia, alderdi teknikoaz–.

4.2. Tartekiak atzeratzen

Batzuetan, oraintsu ikusi dugunez, badago tartekiko edukia atzeratzea, testua arintzeko. Antolaera modu asko baliatu daitezke. Tartekia gibeleran eraman daiteke, eta bi punturen ondoren eman (13b); parentesiak edo marra luzeak ere erabili daitezke (13c), baina bi puntuek arindu egiten dute perpausaren etorria. Testu-antolatzaile batez baliaturik, beste perpaus bat era dezakegu, aditza isilduta (13d). Edo, perpaus sorta konplexuetan (koordinazioan edo menderakuntzan), beste esaldi oso bat sor daiteke (13e).

- (13) a. Jokalari handiek (*Zarrak, Gainzak, Pitxitxik...*) egin dituzte golak San Mamesen.
b. Jokalari handiek egin dituzte golak San Mamesen: *Zarrak, Gainzak, Pitxitxik...*
c. Jokalari handiek egin dituzte golak San Mamesen (*Zarrak, Gainzak, Pitxitxik...*).
d. Jokalari handiek egin dituzte golak San Mamesen; *besteak beste, Zarrak, Gainzak eta Pitxitxik* [golak egin dituzte].
e. Jokalari handiek egin dituzte golak San Mamesen. *Askoren gogoan daude oraindik Zarra, Gainza, Pitxitxi eta beste jokalaririk handi batzuk.*

4.3. Testua arintzen

Ez da komeni prosa tartekiz betetzea: trakestu egiten da irakurketa; ideia nagusiak galtzen dira parentesien eta marra luzeen oihanean. Har dezagun gaztelaniazko adibide bat.

P. Kussmaul (1995b) –*véase también el artículo de Kussmaul (1995a)*– critica algunos de los modelos explicativos del complejo fenómeno de la traducción (como, por ejemplo, el de Hatim y Mason (1990)) porque opina que, si bien poseen un valor pedagógico –*de hecho, el propio Kussmaul recomienda animar a los alumnos a realizar análisis del original desde la perspectiva textual para mejorar su conocimiento del texto de partida y su traducción (1995b: 7)*–, no se centran en el intento de explicación de los procesos mentales de la traducción.

Itzultzaile zuhurrak lehen tartekia oin-ohar batera eramango luke, eta, menturaz, baita bigarrena ere. Bestela, bigarrena atzeratu egin liteke, eta beste esaldi batean eman.

P. Kussmaul-ek (1995b)¹ kritikatzeko dituzten itzulpegiaren fenomeno konplexuaren azalpen-eredu batzuk (esaterako, Hatim eta Mason, 1990), zeren, haren ustez, ez baitira saiatzen itzultzearen buru-prozesuak berariaz azaltzen. Hala ere, ez du ukatzen haien balio pedagogikoa, eta ikasleak bultzatzen ditu originala ikuspegi testualetik aztertzerako, sorburu-testua eta haren itzulpena hobeto ezagutzeko (1995b: 7).

Izan ere, puntuazioa adeitasunaren artea da.

Internet, musikaren azken iraultza

Legeak gero eta gogorrakoak dira Internet bidez deskarga ilegalak egiten dituztenen aurka. Baina, zer dira azken finean deskarga ilegalak? Sortzaileei dagokien kanona ordaindu gabe egiten den deskarga oro? Edo dirua lortzeko helburuarekin egiten direnak? Argi dagoena, zera da, musika eta zinea kontsumitzeko bideak asko aldatu direla, eta industriak Internet aintzat hartu behar duela, etorkizuna sarean dago eta. Guk gai honen inguruko lau adituren iritziak jaso ditugu.



Ignacio Casado SGAE

Nolako eragina dute Internet bidezko deskargak musikako edo zineko profesional eta sortzaileen artean?

Zinari dagokionez, Ikus-entzunezkoen Europako Behatokiaren arabera, 2007ko bigarren seihilekotik 2008ko lehen seihilekora,

250 milioi film jaitsi dira Internet bidez. Euretatik, %2 baino ez dira legezko deskargak izan. Epealdi berean, zine-aretoetako beherakada %7,6koa izan da. Musikari dagokionez, Edukien Industrien eta Sortzaileen Koalizioaren arabera, 2008an 2.000 milioi abesti deskargatu dira. Euretatik, %4 baino ez dira legezkoak izan.

Datuok kontuan hartuta, beraz, eragina itzela dela esan daiteke. Hemen, onuradun argiak daude, telefono-konpainiak, alegia, hamar urteren buruan euren negozioa laukoiztu egin baita “erabat dohainik” kulturari esker. Diskogintzak, ordea, galdu egin du eta urte urte gero eta ekarpen txikiagoa du barne produktu gordinean (BPG). Gainera, milaka lanpostu galdu dira ekoizpen zein banaketa katean. Hala ere, galtzaile nagusia sortzailea bera da, baina batik bat, hasiberriak eta merkatu txikiagoetan lan egiten dutenak (euskal sortzaileak, esaterako), ekoizten dutena mundu guztiaren esku baitago merkaturatu bezain laster.

Legeak behar besteko babes ematen die autoreei? Kateko begi ahulenak ote dira?

Hain zuzen ere, sortzaileak kateko ahulenak dira. Indartsuek, finkatutakoek eta merkatu handiago batentzat lan egiten dutenek aurrera egiten dute. Horren adierazgarri: gaur egun ia-ia ez dago musika-berrikuntzarik. Aniztasun kulturala arriskuan dago, arrain handiak txikia jaten du eta. Internetek horretarako tresnak sortzen ditu, baina horrez gain, doakotasunaren ideia elikatzen du blogosferan zehar. Legeriari dagokionez, indarrean den Jabetza Intelektualari buruzko Legea oso garrantzitsua da, eta derrigorrean betetzea premiazkoa da. “Erabat dohainik” joeraren aurka egin behar dugu, sortzaileen lana ere ordainduta egon behar baita, besteak bezala. Etorkizuneko legeriak aukera teknologiko berriak aurreikusitako behar ditu, eta autoreak babestu. Hori dela eta, zenbait mekanismo jarri behar ditu abian, euren lanagatik bidezko ordainsaria, hau da, soldata, bermatzeko. Hel-

burua ez da Interneteko esparru mugaezinari atek jartzea, lege-esparru bat ezartzea baizik. Britainia Handian eta Frantzia, aurrerapausoak ematen ari dira, baimendu gabeko deskargak behin eta berriro egiten dituen erabiltzaile orok Interneteko konexiorik eduki ez dezan. Ezinbestekoa da egoera berrira, Internetek eskainitako aukera berrietara egokitzea, sarea ez baita garaitu beharreko etsaia, arautu beharreko aukera-atari zabala baizik, Europa osoan aztertzen ari diren lege-proiektuetan adierazi bezala.

Iratxe Esnaola Informatika Ingeniaria eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea



Deskargen munduan legalen eta ilegalen arteko muga ez dago argi batzuetan, zein da gaur egun? P2P sareetan musika eta filmeak deskargatzea legala al da?

Deskarga baten legaltasuna edukiak berak dituen babes neurrien edo egile eskubideen arabera da. Alegia, deskarga legala edo ilegala, baimendua edo ez baimendua izan daiteke, edukien gaineko erabilera arauen arabera. Beraz, P2P sistemen bitartez burutzen ditugun deskargak legalak edota ilegalak izango dira. Baina P2P teknologia hutsa da, deskarga azkarrak ahalbidetzen dituen sistema eraginkor bat. Eta hain da eraginkorra, non Internet erabiltzaileek modu naturalean bere egin eta mota guztietako deskargak burutzeko erabiltzen duten. Funtzionatzeko modu berri hau hain erraz baneratu denean, auzitan jarri behar dena da edukien gaineko babes neurrien muga. Alegia, musika eta zinema kontsumitzeko moduak aldatu badira, eduki horiek erabiltzeko arauak ere aldatu egin behar dira.

Deskarga ilegalen aurkako legearen zorrotasuna egokia iruditzen al zaizu? Zigorrek konponbidea ekar dezakeela uste?

Nire ustetan, edukien gaineko babes neurrien eta egile eskubideen definizioan kokatu behar da eztabaida. Alegia, deskargak ilegalak izan behar duten ala ez planteatu behar da. Funtzionatzeko modu berri hori modu naturalean baneratu da, deskargak kulturaren banaketa ekitatiboagoa ahalbidetzen dutelako. Deskargak martxan ditugunean, ez gara ilegalak sentitzen: naturala da, teknologiek ahalbidetu duten

kultura-kontsumitzeko modu berri bat baita. Hori horrela, zigorek ez dute, inondik ere, konponbidea ekarriko. Arazoaren muinera jotzea eta babes neurrien inguruko planteamendu berri bat egitea ezinbestekoa da. Egungo gazteak funtzionatzeko modu berri hori ahalbidetzen duten teknologiek inoiz jaio dira. Horrela jaio eta horrela bizi dira. Musikarekin eta zinearekin dugun harremana aldatu egin da eta, beraz, musikaren eta zinearen industrietan ere aldatu egin behar dute. Musika eta zinea eskuratu eta banatzeko modua aldatzen bada, sortutako musika eta zinea komertzializatzeko moduak ere aldatu egin behar du.



Mikel Zorrila Kerobia musika taldea

“Materia organikoa eta gainerakoak” diskoa bakoitzak nahi duena ordainduta –edo doan– sarean deskargatzeko aukera zabaldu duzue. Zergatik hautatu duzue bide hori? Ze emaitza izaten ari da?

Gure proiektuaren koherentzia barruan sartzen da erabaki hori. Gure musikari gustuko dugun bilgarria ematen saiatzen gara eta jendearengana eroso sentitzen garen moduan helarazten. Aurreko bi diskoak, “Kerobia” eta “Rose Escargot” copyright lizentziapen atera genituen eta SGAEko bazkide izanda. Ez dugu gustuko copyright lizentziaren filosofia, eta are gutxiago SGAEren kudeaketa lana. Artista batek bere lanagatik dirua jasotzeko eskubidea dauka, baina kudeaketa on batekin, garrantzitsuenekin, eta ez monopolioak erabiliz. Kudeaketa hori entitate publiko batek egin beharko lukeela iruditzen zaigu. Horrexegatik hartu genuen SGAEtik alde egiteko eta gure lana Creative Commons lizentziapen ateratzeko erabakia. Sarean jarri dugu, nahi duenak deskarga dezan, eta, horrela, bakoitzak nahi duen ekarpen ekonomikoa egin dezake. Ez genion gure lanari prezio bat jarri nahi, gure esfortzua eta gure etorkizuna entzuleengan jarri nahi izan dugu, bere erabaki eta koherentziak gure lanari prezioa jar diezaioten. Emaitza: dendetan jarri ditugun diskoak (ohiko prozedurarekin) oso berdintsu saldu dira, Internetetik dohaintza dezente jaso ditugu, eta saldu direnak baino deskarga askoz gehiago eduki ditugu. Beraz, oso balorazio positiboa dela uste dut. Nahi duenak kerobia.com orrian deskarga dezake gure musika.



Marino Goñi Euskal Herriko Diskoetxeen Elkartea (EHDE)

Krisia, pirateoa, “top-manta” delakoa... diskoen industria egurrak jasotzen ari da alde guztietatik. Zein da Euskal Herriko diskoetxeen egoera?

Gutxi gorabehera Mendebaldeko gizarte osoan ematen ari dena, krisiari dagokionez; baina are larriagoa egoera geopolitikoaren aldetik, Espainiako estatuak ez baititu pirateatzearen aurkako legeak indarrean jartzen, eta, bitartean, medio askotan, batez ere Interneten, “pelikulako gaiztoak” bezala aurkezten gaituzte.

Diskoen salmentaren beherakadaren eraginez, zuzeneko emanaldiak indarra hartzen ari dira diru iturri bezala. Susturietara buelta izan daiteke?

Izan edo ez, ez zaigu beste aukerarik gelditzen eta horretan ari gara. Bi gauza azpimarratu nahi ditut: bat, gure sektorea orain dela zortzi urte dagoela krisian. Hori gertatu den bitartean, gure lanpostuak galtzen genituen bitartean eta gure soldadak kobratu ezin genituenean, lantegiak, dendak eta zigiluak ixten ziren bitartean, inork ez zuen guregatik deus egin eta, are gehiago, asko poztu ziren. Hori egitate bat da. Bigarren kontua: orain, krisia zabaldu denean eta denek etorkizuna beldurrez ikusten dutenean, gure dagoeneko indarrean jarri ditugu neurri zuzentzaileak, eta bide onean goazela uste dugu.

Krisiak beste sektore paraleloetan eragina izan duen zalantza izpirik ez daukat. Behin baino gehiagotan esan dudanez, auzoaren etxea erretzen denean ondokoena ere, gutxienez, keak belztuta gelditzen dira eta hori sektore honetan argi ikusi dugu: diskoetxeak izan gara, zalantzarik gabe, artistak, managerrak, soinu taldeak, aldizkariak, irratiak, ekoizpen etxeak, diseinatzaileak... lanean jarri ditugunak, eta eurek ere pirateoaren krisiak eragin diela ikusi dute, nahiz eta apur bat beranduago izan.

Nire ustez, gure sektoreak hogeitaz atzera egin du eta noiz edo noiz makrojaialdi bat edo beste egiteak ezin du ezkutatu kontratazioak behera egin duela, *publishinga* geldituta dagoela, eta abar.

Musika kontsumitzeko erak aldatzen ari dira: deskarga ilegalak, “top-manta” delakoa... Musika talde eta sortzaile gisa nola eragiten dizue horrek?

Hasteko, deskarga ilegalean kontzeptua argitu nahiko nuke: erabiltzaile batek bere etxean P2P sare bat edo beste tresna bat erabiliz musika deskargatzea ez da ilegala, nahiz eta musika horrek copyright lizentzia izan. Ilegala izango litzatekeena da deskargatutako edo originala den material hori dirua irabazteko erabiltzea. Copyright lizentziak eta Creative Commons lizentzia batzuek ez dute material horretatik beste lan eratorri edo “obra derivada” batzuk sortzeko edo dirua irabazteko material hori erabiltzen uzten, eta hori egitea du, hain zuzen ere, legala izango ez litzatekeena, baina deskargatze hutsa ez da ilegala.

Bestalde, egia da jendearen musika kontsumitzeko modua asko aldatzen ari dela; orain abestiak kontsumitzen dira, eta ez hainbeste disko osoak. Musika asko behin entzun eta “bota” egiten da. Horrek ere guregan aldaketa izan du. Guk disko arrunt bat atera ordez, trilogia bat atera nahi izan dugu, eta zati bakoitza 20 minutu ingurukoa da. Guretzako lan osoak koherentzia eta lotura bat izatea oso garrantzitsua da, eta kontzeptualki asko lantzen dugu, baina trilogiaren zati bakoitzak bere aldetik ere zentzua badauka, eta jendearen kontsumitzeko erara gehiago hurbiltzen da.

Begoña Minaur
Kazetaria

Geneen manipulazioa, etorkizuneko medizina?

Egunotan etengabe garatzen ari den teknika horri esker sendabidea izan dezaketen –hipotesia da dena oraino– gaixotasunen zerrenda luzea da: minbiziak, herentziazko gaixotasunak, infekzio bidezko hainbat gaixotasun, eta sistema immunologikoaren alergia eta gaixotasun autoimmu-neak kasu. Praktikan, hala ere, terapia horiek arrakastaz burutzeko oztopo praktiko asko egon dira eta orain arte lortu diren emaitzak uste baino apalagoak izan dira. Esperantzaren atea hor dago, nork ireki zain.


Terapia genikoa deritzo akats genetiko bat zuzentzeko edo zelulei funtzio berri bat emateko, paziente baten zeluletan gen funtzional bat txertatzen duen teknikari. Terapia zelularra, aldiz, gaixorik dagoen giza ehun bat sendatzeko erabiltzen da. Bi terapia mota horien oinarria zelula amak dira: enbrioiaren gertatzen den bezala, zelula soil batetik organismo oso bat sortzeko informazio eta ahalmen genetikoak duten superzelulak.

Itxaropena goren mailara iritsi zen 2007an, Nobel sariek Martio Capecchi, Oliver Smithies eta Martin Evans ikerlari lan nabarmendu zutenean. Ikerlari horiek *gene targeting* izeneko teknologia baten bidez giza patologiak zituzten saguak sortu ahal izan zituzten. *Knock out genes* izeneko teknika bat erabiliz, arratoien zelula ametan ezaugarri batzuk mantendu eta interesatzen ez zitzaizkienak K.O. uzten zituzten. Horrela, arratoiek eurek nahi zituzten ezaugarriak izatea lortu zuten. Teknika horrek, baina, arriskuak ere baditu: zelula ametan aldaketak sortu ahal izateko zientzialariek rotavirusak edo onkogeneak erabili zituzten, eta, horren ondorioz, arratoi batzuek tumoreak garatzen zituzten.

Arazo etikoak

Terapiaren aplikazioan konpondu beharreko oztopo tekniko horiez gain, terapia genetikoaren ikerkuntzak beste arazo nagusi bati egin behar dio aurre. Ikerkuntzan erabiltzen diren ama zelulak eskuratzeko enbrioiak erabili behar dira. *In vitro* ernalketatutako sobran gelditzen direnak erabiltzen dira ikerketak egiteko. Horrek arazo etikoak planteatzen ditu –enbrioiak gizaki biziak dira?, gizaki izan daitezkeenak ikerkuntzarako erabiltzen ari ote gara?– eta gizarteko hainbat arlo ikerketari muga zorrotzak ezarri nahi dizkiote.

Arazo honi aurre egiteko, ikerlariak zelula ama *etikoak* garatu nahian dabilta, enbrioi kalte egin gabe eskuratzen direnak. 2006ean, Shinya Yamakana ikerlari japoniarrek zuzenduriko taldeak zelula helduak zelula ama bihurtzea lortu zuen. Prozesuan, baina, onkogeneak erabiltzen dira, horrek duen arriskuarekin.



Legea, herrialdez herrialde aldakor

Jauzi hori eman bitartean, legea herrialdetik herrialdera aldatu egiten da eta nazioartean legeria oso desberdinak daude gai honetan. Aditu batzuen ustez, etorkizuneko medikuntzaren giltza izan daitekeen terapia hau garatzeko lehia dago, eta metodo berrien patenteak azkarren egiten dituenak jokoan egon daitekeen dirua bereganatuko du. Adibidez, Dolly ardi ezaguna sortu zuten Erresuma Batuan; enbrioi-ekin ikerketak egin daitezke gaixotasun larriei buruzko ezaugarriak garatu eta tratamenduak bilatzeko. Praktikan horrek esan nahi duena zera da, klonazio terapeutikoa onartua dagoela.

Espanian *in vitro* ernalketatik sobran gelditzen diren enbrioi ez bideragarriekin ikerketak egin daitezke, baina bakarrik 14 egun dituzten artean. Frantzia, 1994ko legeak enbrioi-ekin ikerkuntza ez terapeutikoa egitea debekatu du.

Gaiak alde asko ditu, eta, kontzeptu tekniko eta zientifikoak lehor xamarak badira ere, gizartearen berebiziko garrantzia izango du datozen urteetan: Esperantzarik gabeko gaixotasunei irtenbidea bilatzeko aukerak merezi du, gizartean gaiari buruzko eztabaida sustatzea eta gizartea ikerkuntza hauetan engaiatzea, leislazioa pausoz pauso garatuz eta ikerkuntzaren kontrola mantenduz.



Itziar Alkorta

EHUko zuzenbide irakaslea

Zelula amen ikerketak arazo etiko ideologikoak piztu ditu gizartean, eta horren eraginez lege aldetik mugak jarri dira. Zeintzuk dira egun muga horiek?

Ikuspegi etikoaren aldetik arazoa konplexua da eta alderdi asko ditu. Batetik, zelula amen iturrietako bat enbrioia dira, giza enbrioia, eta horiek inbertzuek arazo etikoa sortzen du. Enbrioia zer den definitzeko dago, eta, hori nola ulertzen den, muturreko bi jarrera daude. Batzuek uste dute amaren sabelean oraindik ezarri gabeko enbrioia gauza dela eta ez duela bestelako kontsideraziorik behar. Aldiz, beste muturrean daudenek, Eliza katolikoak batez ere, uste dute enbrioia pertsona dela ernalketa momentutik. Tartean badaude zenbait iritzi. Adibidez, Europako Etika Batzordearen ustez, enbrioia gauzak baino babes gehiago merezi du, etikoki duintasuna duen ondasun bat da.

Bestetik, gaixoen eta gizartearen osasun-eskubidea dago; kontua da eskubide horri enbrioia bizitzeko eskubidearen aldeko hainbat jarrera kontrajartzen zaizkiola. Bestalde, zientzialarien ikertzeko askatasuna dago. Horrek pisu handia du gaurko gizartean, ikerketak gizarteari aurrera egiteko aukera eman diolako historikoki.

Azkenik, bada gutxitan aipatu, baina, nire iritziz, garrantzia baduen arazo etiko bat: emakumeen askatasuna eta emakumeen eskubideen babesa. Zergatik? Bada, enbrioia horiek sortzeko obuluak behar direlako, eta obuluak erazteko emakumeak tratamendu mediku nahiko gogorak eta desatseginak jasan behar dituelako. Neurri batean, batzuetan emakumeak diru-truk obulu-hornitzaile moduan erabiltzen dira, eta nik uste dut hori arriskutsu bihur daitekeela.

Alderdi horiek guztiak nabarmentzekoak dira etikoki, eta beraien artean sortzen da gatazka: batetik, enbrioia eskubideak daude; eta, bestetik, gizartearen osasun-eskubidea eta ikertzeko askatasuna. Hor dago arazo nagusia.

Nazioartean, ordea, deigarria da herrialde bakoitzak bere legedia duela, eta batetik bestera, muga moralak asko aldatzen direla. Munduan lasterketa bat ematen ari da ikerketa horretan?

Ikuspuntu etiko eta juridikotik, zelula amen ikerketei eragiten dien arazo handi bat da legeetan alde izugarria dagoela herrialde batzuetatik besteetara.

Nire iritziz, enbrioia gaineke araudietan dagoen aldea, eta honetan, gainezka egin duen eztabaida baten ondorio da. Hala, ber, iruditzen zait interesak egon direla eztabaida neurritz kanpoko bihurtzeko. Eguneroko hizka-mizka politikoan ere erabili dute, eta hori guztia kaltegarria da ikerketarako.

Ikertzaileek euskarri juridiko seguru bat behar dute. Ezinezkoa da nazioarteko ikerketa egitea, herrialde batzuetan baimenduta

badago eta beste batzuetan ez. Eta arlo honetan nahitaezkoa da nazioarteko lankidetzak. Egin kontu: itsasontzi bat hartu eta, iker-tzera, nazioarteko uretara joatera iritsi dira. Horrek denak neurrigabeko energia- eta diru-gastua sortzen du, eta, beraz, bada garaia eztabaida hau bere onera ekartzeko.

Munduan diru publikoarekin egiten diren ikerketen berri badugu. Zer gertatzen da diru pribatuarekin egiten diren ikerketekin?

Diru pribatuarekin egiten den ikerketak badu arazo nagusi bat: patenteetan jartzen diren mugak. Patenteetan alde izugarria dago Europaren eta Estatu Batuen artean. Estatu Batuetan arlo honetan patente ugari daude, Europar Batasunak, berriz, debekatu egiten du giza enbrioia deuseztatzea eskatzen duen edozein metodo patentatzea. Hala ere, maila horretan Europako Patenteen Bulegoaren politika ez da oso koherentea izan. Legeak hobetu behar direla uste dut.



Ana Zubiaga

Genetika irakaslea EHU

Zelula amen gaineke ikerketen inguruan polemika izan ohi da. Zein dira ikerketa horiek planteatzen dituzten arazo etiko-ideologikoak?

Batez ere, bi arazo etiko ikusten ditut enbrioietako ama zelulen gaineke ikerketarekin. Alde batetik, ama zelula horiek lortzeko modu bakarra enbrioia apurtzea da, eta hori jende askorentzat ez da etikoa. Enbrioia horien jatorria hau izaten da: lagunduriko ernalketa izeneko teknika erabiltzen duten kliniketan edo ospitaleetan sobera geratu diren eta gordeta dauden enbrioia. Jakina, gaur egun sobera geratzen diren enbrioien emaleei baimena eskatu behar zaie enbrioia helburu horretarako erabili ahal izateko.

Bestetik, enbrioia horietatik eratorritako ama zelulak eta gaixo baten zelulak genetikoki berdinak izatea da helburu nagusi bat teknologia honen garapenean, modu horretara gaixoa sendatu ahal izateko. Baina, horretarako, gaixo horren genoma klonatu egin beharko litzateke lehenengo (klonazio terapeutikoa). Emakume emale baten obuluak hartu beharko lirateke lehendabizi; ondoren, kendu euren nukleoa eta ordezkatu gaixoaren zeluletako nukleoa batengatik. Hortik sortuko liratekeen enbrioia deuseztatu egin beharko lirateke, ama zelulak ateratzeko. Gainera, klonazioaren prozedura ez da batere efizientea; beraz, makina bat obulu erabili beharko lirateke horretarako, eta horietatik gutxi batzuek hartuko lukete gaixoaren zeluletako nukleoa. Horrenbestez, bai obuluak eta bai enbrioia apurtu beharko lirateke prozedura horietan, eta hortik datoz arazo etikoak. Esan beharra dago, azkenik, prozedura horrek oraindik ez duela funtzionatzen gizakietan.

Ezin ahaztu baina, terapia zelularra hainbat gaixotasun sendatzeko aukera bakarra izan daitekeela. Egungo azken ikerketen arabera, ze gaixotasun sendatzeko bidean egon gaitzke, ikerketa horiei esker?

Goian esan dudan bezala, ez gaude oraindik gaixotasunak sendatzetik hurbil. Bestalde, sobera dauden enbrioetatik hainbat ama zelula eratorri dira azken urteotan. Ama zelula horiek ez dira klonazio terapeutikoaren metodotik eratorriak, baizik lagunduriko ernalketan sobera geratu direnak. Zelula horiekin hainbat laborategi ari dira lanean, aztertzen ea zein baldintzatan ama zelula horiek bana daitezkeen ehun mota desberdinetan, eta zein baldintzatan mantentzen daitezkeen etengabe ama zelula bezala.

Japoniako ikerlari talde batek enbrioien ama zelulak erabili ordez gizaki helduen zeluletatik ama zelulak sortzea lortu zuen. Eztabaida ideologikoaren irtenbidea izan daiteke metodo hori? Fidagarria al da edo arazoak eman ditu?


2006. urtean, Yamanaka ikerlariak metodo berri bat deskribatu zuen ama zelulak lortzeko. Ikerlari horrek saguen zelula heldu batzuetan lau gene soilik sartuz, ama zelulak lortzeko metodoa aurkitu zuen. Zelula horiek "induzituriko ama zelulak" izendatu zituen. Harrezkero, beste laborategi askok errepikatu dituzte Yamanakaren emaitzak, eta ikerlari batzuek hobetu dute jatorrizko metodologia.

Bi urte geroago, 2008an, gizakien induzituriko ama zelulak lortu dituzte. Adibidez, talde batek esklerosi lateral anizkoitza pairatzen zuen emakume baten azaleko zeluletatik lortu zituen ama zelulak. Ondoren, ama zelula horiek neuronetan eta gliako zeluletan banatu zituzten. Beste talde batek, 10 gaixotasun desberdinetako induzituriko ama zelulak lortu ditu, hala nola, Duchenne distrofia muskularra, Down sindromea, Huntington gaixotasuna eta Parkinson gaixotasunarena. Lan horien helburua zera da: akats genetikoak gaixotatik eratorritako ama zeluletan konponetzea, eta gero sendaturiko ama zelulak berritoki gaixoari sartzea. Eztabaida etikoaren irtenbidea dela iruditzen zait, ez baita ez obulurik ez eta enbrioirik apurtu behar.

Oraindik fidagarritasunaren arloan lan egin behar da induzituriko ama zelulekin. Izan ere, lau gene horiek zeluletan sartzeko erretrovirusak erabiltzen dira, eta horrek segurtasun arazoak sor ditzake. Gainera, lau gene horietatik bat Myc onkogenea da, eta hasierako esperimentuan saguei tumoreak sortu zitzaizkien. Hala ere, zenbait taldek bakarrik hiru gene sartuta lortu dituzte induzituriko ama zelulak oraintsu, Myc gabe.

Munduan zehar diru publikoarekin egiten diren ikerketen berri badu gizarteak. Zer gertatzen da diru pribatuarekin egiten diren ikerketekin?

Beti dago arrisku hori. Enpresa bioteknologikoen edo klinika pribatuek ez badute beren lanaren berri eman nahi, emaitzak jakin gabe geratuko gara. Baina hori edozein arlotan gertatzen den kontu bat da. Hala ere, gaur egun munduan egiten den ikerketa gehiena dirulaguntza publikoarekin egiten da, eta orain arte zenbait enpresek argitaratu dituzte beraiek lortutako emaitzak. Beraz, ez dut uste momentu honetan gauza askorik dagoenik gai honi buruz ezkutuan.



Francisco Errasti

Nafarroako Unibertsitateko CIMA (Centro de Investigación Médica Aplicada) zentroko Zuzendari Orokorra

Ze ikerkuntza genetiko egiten dira gaur egun CIMAn eta zer onura ekar diezaiokete gizaritari?

CIMAn ikerlariak terapia genikoa erabiltzen dute gibeletako gaitzen sendabideen bila, giltzurruna organo behar-beharrezkoa delako. Tratamendu eraginkorren bat aurkitu nahiko genuke; izan ere, hepatitis B gaitzak, berak bakarrik, 350 milioi pertsona hiltzen ditu munduan, eta beste 150 milioi lagunek hepatitis C pairatzen dute.

Egungo legeria dela eta gelditurik dagoen ikerkuntza arlorik ba al dago?

Legislazioa beti hobe daiteke eta desiragarria litzateke legala dena etikoa denaren barruan zedarritzea. Gure kasuan, legislazioak ez digu agindu etikoekin errespetuzkoen kontsideratzen dugun ikerketa egitea eragozten eta ez dugu uste beste laborategiei eragozten dienik ere.

Garapen handia izan dezakeen arloa izanik, finantziario pribatuaren eskuetan interes komertzialek gidatu dezakete ikerketa; bestalde, arlo publikoan, legeria desberdinak dituzten herrialdeen arteko lasterketa ikusten ari gara. Nola lor daiteke erdibidea?

Helburua sendatzea edo behintzat gaixoen sufrimendua arintzea da. Gogoratu beharra dago sendatzearen helburuak ez duela edozein bitarteko justifikatzen. Erdibidea denon artean aurkitu behar dugu, ausardia zientifikoa praktikatu eta giza duintasuna errespetatu. Abangoardiako zientzia eta giza eskubideak uztartu ditzakegu. Zentzuzkoa da eta posible da.

Begoña Minaur
Kazetaria

Bikaintasunera bidea?: Pertsonengan inbertitzea

Bilbo Eskualdea (BiE) Osakidetza korporazioa osatzen duten hogeita hamar zerbitzu-erakundeetako bat gara. Bilboko eta Alonsotegiko herritarrei lehen mailako arretako osasun-prestazio publikoa eskaintzea da gure jarduereremua, eta gure misioa euren osasun-beharrak asetzeko osasun-zerbitzuak eskaintzea. Lehen mailako arretako 20 unitate (LMAU) biltzen ditu bere baitara (osasun-zentroak gehienez), eta 900 pertsona inguru, osasun- eta laguntza-profesionalen, zuzendaritza-egitura eta egitura teknikoaren artean.

Gure kudeaketa sistemak Europako Kalitate eredia hartu du erreferente gisa, 2003-07 Aldi estrategikoan abiarazi eta garatu, eta 2008-2012 Plan estrategikoaren baitako estrategia berritzaileen bitartez bultzatu zena, Osakidetza erakundearekin bat eginez. BiE osatzen duten pertsona guztien parte hartzea eta talde lana dira ikuspegia eta misioa erdiesteko dauzkagun baloreetako batzuk, eta, 2006ko Zilarrezko Q-arekin lehenengo eta 2008ko Urrezko Q-arekin ondoren, aintzatetsitako hobekuntza maila lortzeko giltzarri izan dira.

Europako eredia (EFQM) eta pertsonak

BiEk, 1996tik aurrera, EFQM auto-ebaluazioak egin ohi ditu eskualde mailan bi urterik behin eta, 2004az geroztik LMAUetan ere, gure ingurunera moldatu dugun auto-ebaluaziorako tresna azkarra baliatuz (Evalexpress). Tresnok pertsonen gogobetetasun inkestetan egindako analisi kuantitatiboaren osagarri kualitatiboak dira, eta kudeaketa sistemari buruzko pertzepzioaz informazioa gaineratzen dute.

Ereduaren Prozesuak irizpideari lotutako ekinbideetan erdietsitako hobekuntzaren garrantzia aintzat hartuz, gure esperientziatik pertsonen parte hartzeak eta inplikazioak daukaten balioa aldarrikatu nahi dugu, baita horietatik eratorri diren ekarpenek eta hobekuntza-arloek daukatena ere.

Gure ibilbideak bikaintasunerantz hiru ardatz ditu oinarri, urteko kudeaketa planetan, politika eta strategiari, prozesuei eta itun eta baliabideei lotutako helburuekin batera jasotzen direnak. Hona hemen:

I.-2004-2006: Arkitektura

Lidergoaren garapena, prestakuntzari bultzada, aintzatespena indartzea eta komunikazioa areagotzea. Ekintza horiek oinarritzkoak dira pertsonok erakundea uler dezagun, haren helburu eta erreferentziekin, aintzat hartzen gaituztela senti dezagun eta bertakoak senti gaituzten.

II.-2006-2008: Parte hartzea eta hobekuntza taldeak

Behin oinarriak finkatuta, hobekuntza sortu eta ezarri dadin, erakundea prest dago pertsonen parte hartze praktiboari eta elkarbanatuari bidea emateko. Era horretan, erakunde dinamikoa eta arduratsua egiten du, jardueraren diseinuan ere inplikatzeko ahalbidetzen duena.

III.-2008-2009: Ezagutzaren kudeaketa

Ezagutza transmititzea erakunde osoan. Ezagutza berria sortu eta elkarbanatu.

I. Lidergoa, prestakuntza eta aintzatespena

LIDERGOA

Zentroak eta profesionalak 20 unitatetan sakabanaturik daukaten erakunde baten hobekuntzarako ibilbide-orriak liderrak behar ditu, estrategia hori bultzatu eta profesionalak norabide berean tiraka jarriko dituzten liderrak hain zuzen. Horren harira, BiEk oinarritzko apustua diseinatu zuen: pertsonen inplikazioa eta parte hartzea, lidergo egituratu eta sistematizatuaren akuiluarekin.

Horretarako, BiEk lidergoa hobetzeko estrategia garatu du (LIDERBIE), aitzindaria Osakidetzan. Estrategia horrek liderren euren kompetentziak garatuz, gure osasun-zentroak aberastea eta hobekuntza bultzatzea dakar.

Osasun eta Kontsumo Ministerioak estrategia horregatik, Zerbitzuen Hobekuntza Orokorrean Berrikuntzaren saria eman zion Bilbo Eskualdeari (2006an). Ikuspegia lortzeko, beharrezko balioen argitan, liderren eskumenak berrikustea du oinarri. Berrikuspina, "Feedback 360" eta ondorengo lidergoarekin zerikusia daukaten jokabideen garapen indibidualizatuaren sistematikaren bitartez egiten da, horretarako ikaskuntza eta prestakuntza jarduerak aproposenak areagotuz eta gure urteroko kudeaketa planen ebaluaziorako tresna gisa integratuz era sistematikoan.

PRESTAKUNTZA

Inkestek eta talde fokalek hala adierazita, prestakuntza hobetu beharreko arlo giltzarritzat jo zen. Hortik bada, 2005ean, BiEk LMAUetako profesionalen osatutako Prestakuntza batzordea eratzea.

Harrezkero, prestakuntza urteko Prestakuntza planaren bitartez diseinatu eta bideratzen da. Horretarako, batzordeak

prestakuntza beharrak eta eskaintzak aztertzen ditu, eta urtero 500 bat pertsonen parte hartzen duten “Prestakuntza jardunaldiak” (aurtengoa 5. edizioa izango da) ere biltzen ditu bere baitara. Hobekuntza estrategia horrek gure profesionalen zein profesional-taldean prestakuntza-orduak areagotzea ekarri du, eta gogobetago sentiarazi ere bai.

Plana hedatzeak eta etengabe berrikusteak osasun-zentroetako profesionalen inplikazioa ekarri du, zentro bakoitzean izendatu den prestakuntza erreferentearen bitartez. Beroien zeregina da batzordeari prestakuntzarako hobekuntzak eta beharrianak jakinaraztea eta horri lotutako informazioa eta komunikazioa bere unitatean koordinatzea.

AINTZATESPENA

Ikusmoldea bikoitza izan da: alde batetik, eskualdeko zuzendaritzatik bertatik aintzatespena –bai taldekakoa bai norbanakoarena– bultzatzea eta, beste alde batetik, LMAU bakoitzean aintzatespen planen diseinua areagotzea profesionalak elkar hurbilduz eta euren osasun-zentroko Kudeaketa planari egindako ekarpenak aintzat hartuz. Estrategia hori gure erakundeak urtero berrikusi eta birdefinitzen duen Aintzatespen sisteman biltzen da.

Taldekako sustapen-plana. Helburu bikoitza dauka. Lehengoa, LMAUetatik egindako kudeaketa eta giltzarri diren emaitzak lortu izana aintzat hartzea. Bigarrena, erdietsitako lorpenak aitortzea BiEk baino ez daukan Kudeaketaren hobekuntzaren hedapena deritzogun atalean. Bertan, estrategikotzat jotzen ditugun eta EFQM ereduaren agente bultzatzaileak direnekin lotutako hobekuntzen ezarpena aitortzen da: ISO arauaren bidezko ziurtapenak, EFQM auto-ebaluazioak zentroetan edo praktika onen zabalpena, bezero eta aliatuei zuzentzea, aintzatespen planak zentro bakoitzean eta autoikaskuntza bultzatzea... Hobekuntza horiek guztiak urtero-urtero sartzen dira, profesionalak eurek hala eskatuta.

Atal berriok sartzeak bikaintasunera bidean kontzeptu klabeak hobeto barneratzea ekarri du berekin.

Norbanakoaren aintzatespena. BiEk, 2004az geroztik, lanean 25 urte daramatzaten profesionalen, baita jubilatzen direnei ere, zuzendutako banakako aintzatespen ekitaldiak egiten ditu. Profesionalak eurek hala iradoki dutelako, badira honakoiei lotutako alderdi berriak ere: parte hartzea eta inplikazioa, argitalpen zientifikoak, ikerketa edo BiEren kudeaketa hobetzen laguntzea, barne-auditorietan, irakaskuntzan, berrikuntzan edo prozesu estrategikoen ezarpenean parte hartuz.

II. Partaidetza eta hobekuntza taldeak

BiEK, 2005ean, profesionalen partaidetza kudeaketa sisteman bultzatzaile egiteko erabaki estrategikoa hartu zuen.

Bada, 2006ko Kudeaketa planarekin, hobekuntza taldeak eratzea erabaki zen, urtero ezarri behar ziren helburu estrategikoak zabaltzeko nahitaezko puntu gisa.

Erabaki horrek hauxe zuen oinarri: batetik, profesionalak, inkestean eta talde fokalen bitartez, parte hartzeko nahia erakutsi izanak ematen zuen aukera; eta, bestetik, BiEko zuzendaritzak proiektuen zabalpena maila bereko profesionalen aldetik egitearen arrakastan zeukan segurtasuna.

Eskualde mailako hobekuntza taldeek, gure politika eta estrategia kontuan hartuz, lehenetsitako arloen diseinua, ezarpena eta birdiseinua dute helburu. Egun BiEk 20ren bat proiektu estrategiko dauzka abian, kudeaketa autonomodun hobekuntza taldeen bitartez definituak eta bultzatuak. Taldeok LMAUetako bakoitzean lorpen orokorrak erdiesten dihardute ezarpen-sistema horri esker.

Guztiak BiEko zuzendaritza dute bidelagun, eta LMAUetako profesionalak dira bertako kide eta buru (200 pertsona inguru). Partaide diren talde horien bidez, agerian uzten da benetako hobekuntza estrategia *empowermentean* dagoela.

III. Ezagutzaren kudeaketa

EUSKALITek 2006an egindako ebaluazioak Ezagutzaren kudeaketan hobekuntza estrategia bultzatu zuen. Estrategia horren ardatzak ziren erakundearen baitako ezagutza elkarbanatu, sozializazio horren bitartez berria sortu eta iturri berriak bilatzea. Horiek horrela, Ezagutzaren kudeaketa hobekuntza taldea sortu zen, profesional talde guztien ordezkariak osatua eta euretako bat buru zuena.

Horrela, Ezagutzaren kudeaketarako plataforma eratu zen aipatutako taldearen ardurapean. Elkarriketa iraunkorraren bidez (teknologikoki, bloga), ideien eta proposamenen transmisio iragankorrerako aukera ematen du (jada ez da norabide baka-rrekoa, solaskideek elkar elikatzen dute, eta ezagutza abiapuntutik haratago garatzen dute). Profesional guztiei aurkeztu zitzaizkion, 2008ko Kudeaketa planean, onarpen zabala eta bertan parte hartzeko nahia lortu zituen. 2009rako eta hurrengo urteetarako asmoak berritzaileak eta erreferentziazkoak dira Osakidetzan, eta jada hasi dira bideragarriak izaten lankidetzaren estrategikoko testuinguruetan eta BiEko aliatu nagusiekin/nagusien artean ezagutza elkarbanatzera zuzendutako lan-ildoetan.

Ondorioak

Azaldutakotik eratortzen dena zera da: hobekuntza estrategia oso eta etengabearen garapenak lan-giroaren hobekuntza eta Bilbo Eskualdeko erakundearen parte sentiaraztea ekarri du, ezagutzaren kudeaketari eta, egituratutako lidergoarekin batera, erabakietan eta proiektuetan pertsonen parte hartze handiagoari esker.

Jesús Larrañaga

Osakidetzako Bilbo Eskualdeko zuzendari gerentea

Miren Ormaetxea

Giza Baliabideetako zuzendaria

Internet eta Sare Sozialak

Azken urteotan Internet munduan arrakasta gehien izan duen fenomenoetako bat dira sare sozialak. Baina zer dira sare sozialak? Funtsean, lagunen artean taldetxoak osatuz hauen arteko elkar-irizketa eta elkartruketa ahalbidetzen dituzten webguneak dira. Webgune horiek aukera ugari eskaintzen dizkiete erabiltzaileei: mezuak, argazkiak, musika, albisteak eta bideoak elkartrukatzea, besteak beste. Sistema ezagunen artean aipa genitzake, esate baterako, oso ezagunak eta erabiliak diren Facebook, MySpace, Twitter eta Youtube.

Tresna hauen gakoak da bertara iristen den erabiltzaile batek profil pertsonal bat sortzea, bere izena eta oinarriko informazioa emanaz. Profil hori sortu ondoren, lagunekin edo antzeko zaletasunak dituen jendearekin bat egin dezake, beraien arteko lotura ezarri. Era berean, erabiltzaile baten lagunak dituzten beste lagun batzuekin topo egin dezake eta, honenbestez, lagun sarea etengabe zabaltzen joan. Azken finean, webgune horiek erabiltzaileen arteko loturak sortzea errazten dute eta, azken emaitza gisa, erabiltzaileak bata bestearekin lotzen dituen sare erraldoiak dira. Ohiko lagun sareekin ez bezala, herriko edo auzoko lagunak gain, munduko edozein puntutan interes komunak dituen laguna topatzea ahalbidetzen dute.

Sare sozial guztien artean bada bat azkenaldian beste guztiei gailentzen ari zaiena: Facebook du izena. Webgune horrek berrehun milioi erabiltzaile inguru ditu gaur egun mundu guztian zehar banatuta. Facebooken kontu bat irekitzen duen edonork lagunak bilatu eta haiekin lotura sor dezake, etengabe haien berri izan ahal izateko. Lotura horri esker, haiekin harremanetan jartzeko aukera du, eta baita haiei azken argazki eta bideoak erakusteko aukera ere. Horrez gain, aspaldi berririk izan ez edota urruti bizi diren lagunekin topo egin eta harremana berrezartzeko aukera eskaini dio asko eta askori. Facebookek, gainera, lagunak aurkitu eta kontaktatzeko erraztasun horrez gain, eskaintzen dituen aplikazioei esker izan du arrakasta. Aplikazio horien bitartez, posible da musika taldeen albisteak, webguneen loturak, ekimenak, kontzertuak eta beste gertaera asko lagunei gomendatzea.

Gaur egun erabiltzaile erregistratu gehien duen sarea, ordea, MySpace da. Webgune hau, bereziki, musika taldeei beraien informazio guztia elkarbanatzeko ematen dien erraztasunagatik egin zen ezagun. Gaur egun ia edozein musika taldek MySpacen erabiltzaile kontu bat du. Horren bitartez, musika taldeek edozein bisitariri beren abestiak erakustez gain, argazkiak, bideoak, kontzertuen datak eta albisteak plazaratzeko aukera eskaintzen du MySpacek. Duela urte batzuk arte talde batek bere musika jendeari zabaltzea oso zaila bazen, mundu osoari entzuteko aukera ematea erraztu dute MySpace bezalako sistemek. Era berean, badira webgune honi esker ezagun egin diren taldeak, beraien musika lau haitzeta zabalduz. Musika taldeei aukera horiek eskaintzeaz gain, entzule soilak diren erabiltzaileei ere abantaila ugari ematen dizkie.

2006an sortu zenetik zeresan handia eman duen beste sare sozial bat Twitter izan da. *Microblogging* deritzon sistema horren bitartez, sakeleko telefonoa baliatuz idatzitako mezuak balira bezala, gehienez 140 karaktere dituzten

mezuak elkartrukatu daitezke lagunekin. Zertan ari dira zure lagunak uneotan? Non daude? Zer ari dira irakurtzen? Zein asmo dute asteburu honetarako? Hori guztia eta askoz gehiago jakiteko bide erraza da Twitter, mezu laburretan oinarritutako sistemaren bitartez. Tresna honen gakoak, gainera, mezu labur horiek norbere sakelekoan jaso ahal izatea da, edonon zaudela ere zure lagunak zerbait esan ahal diezazuten.


Eta argazkiak konpartitu ahal izateko? Horretarako ere bada- go, bai, hedapen handia lortu duen tresna. Flickr du izena Yahoo!-ren zerbitzu horrek. Erabiltzaileek beren argazkiak igo ditzakete zerbitzu honetara eta, era berean, lagunak igo dituzten argazkiak ikusi eta horien gainean iruzkinak egin. Lagunen berri izan eta zertan ari diren jakin ahal izateko beste aukera paregabe bat, zalantzarik gabe, argazkiak elkarbanatzearena da. Euskal Herriko guneren bateko argazkia topatu nahi? Seguru Flickr-en badagoela balioko dizunik.

Argazkiekin gertatzen den bezalaxe, bideoekin beste horren- beste egin daiteke, Googlek kudeatutako Youtube zerbitzuaren bitartez. Koadrilan grabatutako bideoak, bezperan telebistan eman zuten saio horren tarteren bat, musika talde gogokoenaren bideoklipak, Realaren azken futbol partidako golak, eta imajina dezakezun beste edozein bideo aurkitu ahal izango dituzu Youtuberen sorta amaiezinean. Beste edozein sare sozialetan bezalaxe, zure bideoak gehitzeaz gain, zure lagunak ere jarraitu ahal izango dituzu.

Beste erabiltzaile batzuek, ordea, beren artean albisteak partekatzea nahiago dute. Horretarako badaude Digg.com edo Zabald.com bezalako albistegi kolektiboak. Horrelako webguneak baliatuz, erabiltzaileak dira gainontzekoei berriak gomendatzen dizkietenak. Halaber, bertara bidalita- ko albiste guztiak beste erabiltzaileek ikusi ahal izango dituzte, eta bozketa sistema bati esker, komunitateari interes- garrien irizten zaizkion albisteak agertuko dira webgunearen azalean. Aipatutakoak kolaborazio sozialaren bidez eginda- ko albistegiak direla esan daiteke.

Beste adibide interesgarri bat markatzaile sozialena da. Hor- txe ditugu, esate baterako, Delicious edo Bildu.net bezalako webguneak. Horien helburua erabiltzaileei laster-markak gordetzeko aukera ematea da, eta, horrez gain, gordetako laster-marka horiek lagunekin elkarbanatzea. Emaitza gisa, zure lagunentzako interesgarriak diren webguneen berri izan dezakezu, besteak beste.

Goian azaldutakoak gaur egungo sare sozialen artean ezagu- nenetakoak diren arren, ehunka tresna aurki daitezke Inter- neten. Euskaraz ere hainbat sare sozial existitzen dira, aurrekoen funtzionamendu beretsua dutenak. Gure hizkun-



tzan badugu, esate baterako, albisteak elkarbanatzeko Zabaldu.com, loturak trukatzeko Bildu.net edo argazkiak konpartitzeko Argazkiak.org. Aukera zabala da nahi dugun lagunekin topo egin eta baliabideak elkartrukatzeko.

Dena dela, nahiz eta sare sozialek hasiera batean zaletasun gisa erabiltzeko tresna soilak diruditen, beste esparru askotan erabiltzea posible da. Esate baterako, hezkuntzan oso interesgarria da sare sozialen erabilera. Ikasle batek –lan bat egiten ari dela edo ikasten ari dela– zalantzak izan ditzake, edo apunteren batzuk falta zaizkiola antzeman dezake. Zer egingo luke ikasle horrek sare sozialik gabe? Zorte pixka batekin, klasekideren baten telefonoa badu, hari deitu eta kontsulta egin; baina ez da oso eraginkorra... Zer eskain diezaike ikasle hauei sare sozial batekin? Klase bateko ikasleak lagun gisa defini daitezke sare sozial batean, eta ikastaroan zehar beraien baliabideak eta apunteak bertara igotzen joan. Honenbestez, bertan eskuragarri egongo da informazio hori guztia uneoro. Egunen baten dokumentu baten falta sumatu duzula? Sare sozialera jo, eta seguru norbaitek bertan ipini duela. Erraza.

Esan beharra dago, goian aipatu diren sare sozialen adibide guztiak Interneten eskuragarri daudenak direla. Baina, noski, posible da sare sozial bat ikastola edo beste sare pribatu batean abian

jartzea, bertako kideei bakarrik sartzen uzteko. Horrela, kontrolatu egin daiteke aplikaziora sarbidea utzi nahi zaien erabiltzaile taldea, eta, mundu osoari zabaldu beharrean, ingurukoei bakarrik ireki.

Horiek eta beste asko dira gaur egun arte sare sozialek ireki dituzten bideak eta Interneteko erabiltzaileoi eskaini dizkiguten aukera berriak, beti ere, erabiltzaileen parte-hartzea sustatuz; hau da, webgune bateko bisitaria irakurle izateaz gain, parte hartzera bultzatzen dute sare sozialek, erabiltzailea motibatuz eta interesa piztuz. Halaber, hurrengo urteetan aurrera egin eta etengabe hobetzeko joera erakusten dute sare sozialek, erabiltzaileon parte hartzea are gehiago erraztuz. Nolanahi ere, aipatu beharra dago sare sozialak eguneroko bizitzan beraien berri izan, beraiekin hitz egin edota gure berri emateko aukerarik ez dugun lagun horiekin harremana estutzeko baliabide aparta izateaz gain, antzeko zaletasunak dituen jende berria ezagutzeko bidea ere irekitzen digutela eta, honenbestez, orain arte imajina ezin genituen lorpenetara eraman gaitzaketa.

Arkaitz Zubiaga
Informatikaren ikertzailea



Toribio Etxebarria eta euskara: liberalak eta sozialistak

Zail da TORIBIO ETXEBARRIA IBARBIA (1887-1968) eta euskalgintzaren arteko harremana lerro gutxitan laburbiltzea. Saia gaitezen, dena den, eibartar sozialistaren bilakaeraren berri ematen.

Aurrekariak:

Errepublikanoen hizkuntza ikuspegia

Etxebarriaren gaztaroan ideologia aldaketa bat hezurramituz joan zen Eibarren. XIX. mendean, urte luzez, Eibarren nagusi izan zen ideologia errepublikanoak itzaltze azkarra izan zuen, sozialistek gainditua; langileriaren arazoei erantzunik eman ezin zion ideologia burgesa zelako. Baina hizkuntzaren aldetik, zer? Eibarko errepublikanoen ideologia espainiar errepublikano federalisten pentsamenduari lotua zegoen, eta, hain zuzen, liberal-errepublikanoen eskutik zetorren Espainia estatu moderno bat egitearen proiektuari. Orduko eibartar ilustratuek Espainia monarkiarik gabeko nazio sendoa, laikoa eta aurrerazalea nahi zuten, funtzionatzen zuen ekonomia batekin, hots, beren produktuak eragozpenik gabe nonahi saltzeko baliatuko zuen estatu bat. Eta horretarako, ekonomia zabal eta nazioarteko horretan, gaztelania zen hizkuntza baliagarri bakarra.

Horrelakoa zen Toribiok ezagutu zuen Eibarko giroa. Euskara kale hizkuntza bizia eta zenbaitentzat eredugarria genuen, J. Garate bergararrak zioen bezala. Baina eskolaraiko eta ekonomia harremanetarako gaztelania behar zuten. Hizkuntzaren funtzioak garbi zeuzkaten. Euskara ohitura zen, ez etorkizuna.

Unamunoren hitzaldia euskararen aurka

Baina, aldiaren behin, giroa endekatu egiten zen. Hala gertatu zen, esaterako, 1901eko Miguel de Unamunoren Bilboko Lore Jokoetako hitzaldiarekin. Gipuzkoa osoan kontrako iritzia ezagutu zuen, eta ehunka izan ziren *La Voz* egunkari errepublikanoak jaso zituen aurkako sinadurak, nahiz eta bilbotarrak Eibarko zenbait sozialistaren nolabaiteko adostasuna izan *Adelante!* hamabostekariaren bidez. XX. mendean barrena, maiz berresango den axioma errepikatu zuten: *euskaldun=elizar*, hots, euskara apaizek propio ezjakintasunean ezkutaturik zeuzkaten euskaldun nekazari eta base-ritarrentzako hesia zen.

Hurrengo urtean, 1902an, Eibarko Langileen Federakunde-ko arduradunen adierazpenek hauts asko harrotu zuten:

“Euskaraz egiten dugu besterik ez dakigulako”. Hizkuntzaren identitate gabeko erabilera egiten zuten berberak ziren.

Indalecio Prieto lider sozialistak argi zeukan euskararen garrantzia beren “berri ona” euskaldun elebakarrei hurbilazteko garaian. Horregatik, biziki animatzen zuen Akilino Amuategi bere mitinetan euskaraz egiten jarrai zezan, ez baitzuen beste biderik ikusten euskaldun elebakarrak bereganatzeko.

Toribioren gaztaroa, bada, Eibarren goraka datorren giro sozialistan mugitu zen. Bere ikastegia, *Centro Obreron* eta nonahi eskuratzen zituen liburuez kanpo, bera baino nagusiagoak ziren militanteak izan ziren (Marcelino Bascaran, Akilino Amuategi...). Baina batez ere bat, Jose Madinabeitia mediku oñatiarra, zeinek 1905ean Bilbotik itzulerako bidea egin zuen. Aberatsen mediku, pobreen artatzaile, Bilboko handikiek baztertua bere iritziengatik, Eibar hartu zuen nolabaiteko misioleku berri. Oraindik apenas boteririk ukitu zuten hogeigarren mende hasierako sozialista idealisten hastapenak ziren, Tomas Meabe bera adibide, hark ere Eibarren egonaldiak egin ohi baitzuten.

Hartan honetan, Etxebarriak bere bizitza bideratu nahi izan zuen eta, horretarako, 1912an, damaskinu langile hark udal-letzeko idazkari laguntzaile lanpostua erdietsi zuen. Bere curriculumean, “conocimiento de vascuence” herabe bat, besterik ez. Langintza hura 1920tik aurrera, Alfa kooperatiba sortu berriaren kudeaketarekin batu zuen.

Errepublika heltzean, sozialistek Eibarko udal agintea hartu zuten nagusitasun osoz. Baina udal politika arestian esan dugun haritik doa: Euskara hitz egiteko hizkuntza zen, horra beraientzat haren funtzio ia bakarra. Idazteko, hobeto gaztelania. Horregatik, berez betidanik euskararen eskakizuna zuten lanpostuetan ezabatu egin zuten hura, hala nola, udaltzainburu eta idazkari lanetan.

Baina erbestea izango da Etxebarriaren liburu eta gordetako pentsamenduei atea zabalduko diena. Hark Venezuelatik idatzirik euskarazko bi lan azpimarratuko genituzke: *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, emaztearen oroimen bikaina lagun burutua, non Toribiok Eibarko euskararen bilketa handia egin zuen. Eta, berarekin batera, *Ibilitarixanak*, bertsoz idatzia, gaztelaniazko iruzkinekin, zeinetan Euskal Herriko gaiekin batera, nazioartekoak ere bildu zituen.

Prosista bikaina erdaraz, eibarkeraren lekuko aparta, Etxebarriak bere alderdiaren hizkuntza inertziatik at geratzen jakin zuen. Beste askok ezin esan zezaketen horrelakorik.

Antxon Narbaiza

Abokazioa, eskumenaren bereganatzailea goragokoa ez denean

AURREKO BATEAN ADMINISTRAZIO eta Prozedura Legearen euskarazko testuaren akats bati buruz jardun nuen (ikus “Lege testu bat orrazten” in Administrazioa Euskaraz, 61. zenbakia). Ondoko lerroetan, ildo beretik jarraituz, lege testu horrexeri erreparatu diodan beste itzulpen oker bat izango dut hizpide.

Legearen 14. artikulua izenburura jo eta ikusi ahal dugu nola eman den euskaraz “avocación” erdal hitza: “goragokoak eskumena bereganatzea”. Nire aburuz ez dago ondo itzulita. Arazoa ez datza, baina, hitz bakar baten ordez perifrasi bat erabiltzean; perifrasi bidezko errekurtsioa ez ezik, sarritan aukerarik egokiena ere izaten da, ilunaren argigarri, gainera. Kontua, ostera, beste hau da: bi abokazio mota daude, eta “goragokoak eskumena bereganatzea” esamoldeak bi horietatik bat baino ez du adierazten; perifrasiak ez du, beraz, kontzeptu osoa barnebiltzen.

Zer da, ba, “abokazioa”? Ulegarritasunaren alde sinplifikazio txiki bat eginez, honako hau: ebazteko eskumena duen organoaren ordez beste organo batek beretzat arazo jakin batean ebazteko ahalmena hartzea. Eta “beste organo” hori izan daiteke: a) goragoko organoa; ala b) eskumena eskuordetzan eman duen organoa. Beste berba batzuetan, abokazioak bi esparrutan egiten du dantza: hierarkiaren esparruan eta eskumenen eskuordetzaren esparruan.

Abokazio mota biak Legearen 14. artikulua 1. paragrafoan daude, baina ondo bereziak. Paragrafo horren lehen lerrokada hierarkiaren eremuko abokazioari dagokio; bigarren lerrokada, berriz, eskuordetzaren eremuko abokazioari. Administratibista batzuek “abokazio propioa” deitu diote lehenari eta “abokazio inpropioa” bigarrenari. Arauz, abokazio inpropioa berria ala tradiziogabea da administraziozuzenbide espainiarrean. Horregatik, antza, hainbat hiztegi –orokorrekin zein juridikok– abokazio propioaren kontzeptua baino ez dute agertzen, baina indarreko legeriaren ikuspegitik bereizpena egin beharra dago, ez bairik gabe.

Gauzak hala, bi aukera posible ditugu erdarazko “avocación” hitza –bere orokorrean hartuta– euskaratzeko: a) Orain dugunari “goragokoak” kendu eta “eskumenak bereganatzea” utzi (esan dezagun, bidenabar, horixe dela Legearen euskarazko testuak egiten duena –nahita ala nahigabe– 14. artikulua azken lerrokadan), eta b) “abokazioa” esan. Nik neuk bigarren aukera hori hobesten dut; horra zergatik.



Doktrina juridiko onenari jarraituz, esan dezadan abokazioaren bidez ez dela, egiatan, eskumenaren translazio edo eskualdaketarik gertatzen. Abokazioa egin duen organoak jarraitzen du eskumenaren jabe izaten; gertatu dena izan da, bakar-bakarrik, espediente jakin batean ebazpen zehatz bat emateko ekintza hutsa beretzat hartu duela abokatzailak; hots, bereganatu duena ez da eskumena bera izan, arazo jakin eta zehatz bat ebazteko ekintza hutsa baino. Izan ere, “singularitasun” hori (hala deitzen dio doktrina juridikoak kasu zehatz edo jakin baterako izatearen nolokotasun honi) da abokazio orenen ezaugarri nabarmena. “Eskumena bereganatzea” hitz pareak eduki handiagoko beste zerbait eman ahal du aditzera, eta horregatik uste dut “abokazio” hitz soila hobestekoa dela. Aitortu dezadan, nolana ere, Legea bera dela –jatorrizko erdal testuan– nahasmenaren lehen sortzaile, eta, esate baterako 12. artikulua hitz-tarte batek bide ematen duela ondorioztatzeko abokazioak bada-rakarrela eskumenaren translazio edo eskualdaketa; nik esan dudaren guztiz kontrakoa, alegia. Gaiak badu, beraz, bere marapiloa, eta bistan da itzulpen baten lepoan –garai guztietako onena izanik ere– ezin dugula utzi halako marapiloen askatzaile izateko zama.


Zernahi gisaz ere, uste dut argi gelditzen dela Administrazio eta Prozedura Legearen euskarazko testuak zuzenketa batzuk behar dituela “avocación” erdal hitzaren parekoa azaltzen denetan (12. eta 14. artikuluetan; ustez, behintzat, ez beste inon). Hitza bere esanahi osoan itzuli behar denean ez du balio gaurko euskal testuak ematen duen perifrasiak, baina perifrasi hori zuzena izan daiteke abokazio mota bietarik bati gagozkion guztietan.

Jabier Erize
Arrigorriagako Udaleko A.O.T.

Hitz gezidunak

	Fruitu mota ▼	Nahasi ▼	Modua ▼	Agiria ▼	Interjekzioa
	Basauritar	Saria eman	Begarako auzoa	Irrati emanaldi	
Nafarroako herria ▶					
Pl., ugaz-tun mota					
Hondo handikoak ▼	Nafarroako herria ▶ ▼			Jainko egiptoarra ▶	Junta-gailua
Laponia-koa	IRUDI KO KIROLA			Kontsonantea	
					Bokala ▶ ▼
					Zer lekutarat?
Usain txarra ▶				Leherkari ezaguna ▶	
Gai zurixka				Uribe Kosta	
		United Kingdom ▶		Hegazti mota ▶ ▼	
		Gipuzkoako herria		Enborraren mami	
Zer modutan? ▶			Bizkor ▶		Z birritan
Bataioa egin			Bokala		
				Joan den urtea ▶	
				Kontsonantea	
Gorotza ▶		Nafarroako herria ▶			

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da

1. Eskatzailea.
2. Poltsikoa.
3. Pilota jokaldia.
4. Libre.
5. Suari dariona.
6. Ahuntzaren ar.
7. Kaltzio oxidoa.
8. Pl., zuhaitz mota.
9. Arrakalak, arraildurak.

Soluzioak

	A	O		E		E	T	A		Z	Z			
	E	R	A	R	A	A	T	N	O	A				
	L	U	B	E	R	A	S	U	K	A	R			
	B	A	S	A	R	D	I	A	S	A	Z			
	B	A	N	A	R	I	A	T	U	K	A			
	B	G	O	N	A	R	A	I	A	I	A			
	S	A	P	O	L	I	O	L	A	T	A			
	L	B	O	N	A	K								

1. Eskatzailea.
2. Sakela.
3. Sakela.
4. Aske.
5. Keu.
6. Aker.
7. Kareia.
8. Arreak.
9. Arrakalak.

Hitz gezidunak

Goitik behera